

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko uztailearen 23a

IV. urtea • 165. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



IGNACIO LAKUNTZA

“Ez dut ondo ikusi Egibarrek hartutako erabakia; irtenbidea Alderdien Legea desegitea da” /7

Goienka2a

Furgonetak, auto zein oporretako bizileku erabiltzeko modukoak

ASTEKO GAIA: ARANTZAZU BERRITUTA, DATORREN URTEAN

Arantzazu, datorren urterako berrituta

Orain dela bi urte fraideek hasitako berrikuntza lanak ia bukatuta daude Arantzazun, eta datorren urte hasieran guztiok erabiltzeko moduan izango dira.

Aldaketa nagusiak begi bistan daude dagoeneko: besteak beste, seminario zaharra kultura topagune bezala moldatzen ari dira;

oinezkoei protagonismoa bueltatu diete, hainbat leku egokitu; garai bateko bidezidorrak berreskuratu dira, naturaz gehiago gozatzeko... Oro har, fraideen esanetan, Arantzazuri jatorrizko fede, kultura, natura eta gizarte topagune izaera itzuli nahi izan dio egitasmo horrek. /3

■ *Errromesei eta herriari begira egin dira berritasun gehienak*

■ *Zazpi milioi eta erdi euro inguru kostatu dira lanok*



Aparkalekuak janda zuen zati handi bat oinezkoendako berreskuratu dute Arantzazun.

LEIRE KORTABARRIA

Hiltegia beste urte erdiz zabalik edukitzea erabaki dute alkateek

Martitzenean ibarreko alkateak Zubillagako hiltegiaren gainean hitz egiteko elkartu ziren, eta proposamen berri batekin atera ziren bileratik: hiltegia beste sei hilabetez zabalik edukitzea. Tarte horretan, sektoreak hartuko du hiltegiaren baliagarritasun plana egitearen ardura. Azaro inguruan, planaren nondik norakoak aurkezteko eskatuko zaio sektoreari, eta apirilaren 30erako bukatu beharko dute plana. Joan den

asteen, abereak beste hiltegi batera eramateak sor ditzakeen gain kostuak berak ordainduko zituela onartu zuen Mankomunitateak, eta orain, hiltegia beste sei hilabetez zabalik edukitzea proposatu dute eskualdeko alkateek. Hiltegia Bizirik! plataforma osatzen dutenak gertu daude baliagarritasun plana egiteko.

Mankomunitateak berriro aztertuko du hiltegiaren gaia uztailearen 28an. /4

BERGARA

Film luzea errodatzen hasiko da Asier Altuna

Telmo Enal eta Asier Altuna *Aupa Etxebeste* izenburuko film luzea errodatzen hasiko dira abuztuan, Bergaran. Ramon Agirre, Elena Irureta eta Iban Garate dira aktoreen zerrendan, besteak beste. Filmaketa abuztuaren 23an hasiko da Bergaran. Herriarrek parte hartzeko aukera izango dute, izan ere, casting probak egingo dira datorren eguaztenean kultura etxean. /6



IRAILERA ARTE, IRAKURLE!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 26ra bitartean. Hori dela eta, GOIENKARIAren hurrengo zenbakia irailaren 3an argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro oporrak.

ARRASATE BIDAIK

Konfiantza osoko zure bidaia agentzia

ZABALDU BERRIA

Kontzezino kalea 12
ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30
Faxa.: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es



Inork ez dizu gehiago emango.





Euskadi geldi ez dadin:

Bay

Euskaldunok Euskadirentzako etorkizun hobeari bai esateko aukera dugu orain. Eta honetan denok gaude ados.

- > **Bai garraio sistema moderno eta gaur-gaurkoari**, energia aurreztu eta ingurumena errespetatzen duenari, gure errepideetako trafikoa arindu eta istripuak gutxitzen dituenari, lurralde eta pertsonak hobeto lotu eta Europara gehiago hurbiltzen gaituenari.
- > **Bai prestazio handiko trenari**, gure ekonomiaren eragile denari eta merkataritza eta salgaien mugimendua azkartzen duenari. **Bai aurrera egiteari** eta bide lasterretik etorkizun oparago > baterantz jotzeari.

Oraintxe dugu Euskal Yari baietz esateko aukera.
Ez dezagun gal aukera hau.



VASCA

Euskadi geldi ez dadin.

aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE
TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

EuskoTren

Berritutako Arantzazu datorren urte hasieran zabalduko dute

Aterpetxea, oinezkoendako lekua, natura pasiaguneak... daude

LEIRE KORTABARRIA

Bitoriano Gandiagak frantziskotarrei esandako hitzak dira: "Arantzazu humanizatu behar duzue". Gandiagak gaurko Arantzazu ikusiko balu, pozik geratuko litzateke, seguruenik; izan ere, aholku hori jarraituta, berri-ze lan anbiziadunari ekin zioten frantziskotarrek, eta ia bukatu dira lanok: datorren urte hasieran, Arantzazu eraberrituaz gozatzeko modua izango da.

Birmoldatze lanok orain bi urte hasi zituzten, frantziskotarren mendeurrenean. Dagoeneko, kanpotik behintzat, berritasun gehienak eginda daude.

Honakoak dira aldaketa nagusiak: batetik, seminarioaren zati handi bat bota eta 7.000 m²-ko eraikina utzi dute. Hori izango da Kultur Topagunea delakoa. Erromesendako, familiendako, gazteendako... egoteko lekua, kafetegia eta aterpetxea egiten ari dira. Bigarren solairuan, hainbat bilera gela egingo dituzte. Horrez gain, erakusketak antolatzeko bigarren mailako eraikina izango da eta, seminarioaren inguruan, gogoetarako isiltoki txiki bat egokitzen ari dira; azkenik, garai batean jendeak erabiltzen zituen bidezidorrak berriro moldatu dituzte, naturaz gozatzeko aukera gehiago emanaz. Autobus eta autoendako aparkaleku berezia egin dute, eta baita eraikin borobil bat komun publikoendako eta turismo bulegorako. Bestetik, aparkalekuek hartzen zuten zati handi bat oinezkoendako berreskuratu dute.

JATORRIRA ITZULI

Frantziskotarrek aspalditik zuten Arantzazu berritzeko irrika, seminarioa modu sozialean erabiltzeko eta erromesen beharrei behar bezala erantzuteko. Izan ere, aurreko itxura eta eraikinak garai bateko beharrei erantzuteko jaino ziren, eta orain, behar horiek desagertuta, fraideak garai berriei begira jarri ziren: "Santutegia 1955.ean bukatu zuten. Garai hartan, behar asko zeuden: seminario handi bat behar genuen, aparkaleku handia, frontoia... Hori dela-eta, Arantzazu eraikin handiek hartua geratu zen", azaltzen du Telesforo Zuriarrain frantziskotar eta lanen arduradunak.

Urteak joan ahala, ordea, egoera asko aldatu zen. Seminarioa hutsik geratu zen 1990.ean. "Jendeak ikusten zuen etxe handi hura hondatzen ari zela. Baina



LEIRE KORTABARRIA

Seminario zaharrean, Arantzazu Kultur Topagunea egokitzen ari dira.




LEIRE KORTABARRIA

Irudiko eraikinean, turismo bulegoa eta komun publikoak ipiniko dituzte.



LEIRE KORTABARRIA

Aspaldiko bidezidorrak berreskuratu dira, naturaz hobeto gozatzeko.



LEIRE KORTABARRIA

Gogoetarako eta isilunerako eraikina. Oteizaren *Misterioa* eskultura dago hor.

handiegia zen, 16.000 m² zituen, eta guztia erabiltzea, garestia izateaz gain, ez zen bideragarria". Seminarioa ez zen arazo bakarra: ezertarako erabiltzen ez zen frontoi erraldoiari ere burubidea eman behar zitzaion. Itxura alde-rik, aparkalekua zen beste arazo bat: oinezkoendako leku larregi jaten zuten.


Horrek eragin zuen Arantzazuk jatorrizko moldera ekarri nahia: "Arantzazuk betidanik izan duen fede, kultura eta izadi gune izaera berreskuratu nahi izan dugu", azaltzen dute Telesforo Zuriarrain eta Iñaki Beristain frantziskotarrek. Horrekin lotutako asmoa da Arantzazu herriari gehiago irekitzea.

Hainbat arazoren ondoren, azkenean orain bi urte jaso zituzten dirulaguntza garrantzitsuak: erakundeek ia bost milioi euro ipini zuten, eta frantziskotarrok, beste bi eta erdi.

Eztabaida: ezkutatu edo agerian utzi

Izan da eztabaida sortu duen konturik: Basilikako frontea ezkutatzeko duen eraikinarena.

Aurreko egiturak bota zirenean, Basilika oso agerian gelditzen zen. Seminarioak eta frontoiak, albo batean, eta erdi-erdian egindako aparkaleku erraldoiak, bestetik, santutegia, Oteizaren apostoluak eta gogartetxea urrutitik begiratuta ere bistan uzten zuten. Azkenean, fraideek erabaki zuten Arantzazu bere jatorriko egoera bihurrian uztea: Basilikako aurrea ikusteko gerturatu egin behar gara. "Basilika berriro gordeta dago. Hurbildu ahala, apostoluzaren edertasunak bere ezustea sortzen dizu", diote.



ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARRAK

Argazkiko itxura izan du Arantzazuk 50 urtetik gora. Argazkia 2000. urtekoa da.

Hiltegia beste sei hilabetez zabalik izatea proposatzen dute eskualdeko alkateek

Tarte horretan, sektoreak hiltegiaren baliagarritasun plana aurkeztu beharko du

OIHANA ELORZA

Hiltegia beste sei hilabetez mantentzea proposatzen dute alkateek. Hiltegia Bizirik! plataformako kideek, ez dute ondo ikusten 2005eko apirilaren 30ean hiltegia sei hilabetez ixtea orain erabakitzea. Osoko bilkurak egingo dira.

Eskualdeko herri bakoitzak osoko bilkuran aztertuko du proposamen hau: Zubillagako hiltegia beste sei hilabetez zabalik edukitzea. Denbora horretan, sektoreak hiltegiaren baliagarritasun plana egin beharko du. Azaro inguruan, planaren berri ematea eskatuko dio Mankomunitateak sektoreari, eta apirilaren 30erako bukatuta izan beharko dute plana.

Ekaineko bileran, hiltegiaren gaineko erabakia udalbatza bakoitzak hartzea erabaki zuen Mankomunitateak Gatzagan egindako bileran. Aste honetan, martitzenean, eskualdeko alkateek bilera egin dute, eta bilera horretatik atera da proposamen berria. Egun hauetan ezohiko osoko bilkurak egiten ari dira eskualdeko herrietan hiltegiaren gaiaz aritzeko, eta udalbatza bakoitzak proposamen horren inguruko erabakia hartu beharko du. Arrasaten, adibidez, eguen goizean egin zuten osoko bilkura. Blanca Roncal zinegotzi sozialistak lehen sektoreari lagundu egin behar zaiola esan zuen, Europar gertatzen ari den bezala. Bestalde, Jauralaritzak hiltegia Bilbon jartzeko duen erabakiak "prezio politika bakarra" ezartzea esan nahi duela esan zuen, eta horrek "monopolioa" ekar dezakeela. PSOEk, PPK eta EBK mozio honen alde bozkatu zuten, baina azkenean alkatetzaren proposamena onartu zuen udalbatzak, alkatearen kalitatezko botoari esker. Eskoriatzan, eguazteneko osoko bilkuran jorratu behar zuten gaia, baina eguen arratsaldekorra pasa zuten. Hala ere, Mankomunitateak berriro



UBANE MADERA

Arrasatekoan bezala, osoko bilkura guztietan agiri bat irakurriko dute Hiltegi Bizirik! plataformako kideek.

Egun hauetan ezohiko bilkurak egingo dituzte udalek, hiltegiaren gaia jorratzeko

aztertuko du gaia datorren bileran, uztailearen 28an.

NEGOZIAZIOEN OSTEAN

Mankomunitateak bi hilabetez batera hiltegiaren etorkizuna erabakitzeko eta itxiera eztabaidatzeko. Epe horretan, informaziorik eta argibiderik ez zuela jasotzen salatu zuen behin eta berriz hiltegiak zabalik jarraitzearen alde sortutako Hiltegia Bizirik! plataformak. Mankomunitateak ixteko aipatzen zituen arrazoiak ere pisukoak ez zirela esan zuen.

Eusko Jauralaritzak Bilbon jarri nahi du okela kudeatzeko EAerako hiltegi bakarra

Arrazoiaren artean, osasun arazoak aipatu zituen Mankomunitateak. Sektoreak, ordea, hiltegiak 2005. urte arteko osasun agiria zuela adierazi zuen. Diru galerak sortzen dituela izan zen ixtearen aldeko beste arrazoi nagusia. Hainbat txostenetan diru kopuru ezberdinak agertzen zirela erantzun zion sektoreak Mankomunitateari.

Joan den astean beste proposamen bat egin zuten Mankomunitateak ibarreko baserriarrei. Hiru puntu jasotzen zituen proposamen horrek: hiltegia urte-

Mankomunitateak berriro aztertuko du hiltegiaren gaia datorren uztailearen 28an

betez gorde, erabileraren gaineko aukeren zain; abereak beste hiltegiara eramateak dakartzan gain kostua Mankomunitateak ordaintzea; eta, azkenik, aukera guztien gaineko informazioa zabaltzea. Aste honetan, aldiz, hiltegia beste sei hilabetez zabalik egon dadin erabaki dute eskualdeko alkateek.

SEKTOREAK HARTUKO DU ARDURA

Alkateek proposatutako sei hilabetezko luzapenean, sektoreak hartuko du hiltegiaren baliagarritasuna bideratzeko ardura.

Plataforma osatzen dutenak prestatu daude hiltegiaren jardueran parte hartzeko eta behar diren konpromisoak hartzeko hiltegia kudeatzeko eratzten den estrukturan.

Hiltegia Bizirik! plataformako kideak, aldiz, ez dute ondo ikusten zergatik erabaki duten orain apirilaren 30a arte zabalik izatea eta gero hiltegia beste sei hilabetez itxita edukitzea. Plataformako kideen ustetan, itxi egin behar den edo ez, gero erabaki behar da eta ez orain. Itxiera, gainera, kaltegarria izango da sektorearendako.

JAURLARITZAREN PLANA

Euskal Autonomia Erkidegoan hamar hiltegi daude, eta horietatik zazpi publikoak dira, udal hiltegiak, alegia. Jauralaritzak uste du horrenbeste hiltegi publiko egotea ez dela ona okelaren sektorea behar den bezala garatzeko. Jauralaritzaren ustez, okelaren zatiketa, paketatzea, eraldaketa eta gainontzeko atalak elkarren jarraian egingo dituen industrializazioaren alde egin behar da. Hiltegiaren modernizazioa eta zatiketa proiektu hau ganaduzaleen sektorearekin batera egingo du Jauralaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak.

Hain zuzen ere, Oñatin egon ziren proiektuko hiru kide asmo honen berri ematen. Proiektu horrek lurraldetasuna alde batera utzi eta EAerako elkarte bakarra sortzea nahi du. Elkarte horrek pentsua erosi, garraiatu, komertzializatu eta produzitu nahi du. Hiltegiei dagokienez, egokitu egin behar direla uste du, ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeko. Euren ustez, haragiaren kudeaketa moderno baten barruan, Oñatiko hiltegiak ez du lekurik; ekimen horren iritziz, hiltegiak ezin du abereak hiltzeko zerbitzua bakarrik eman, hortik aurrerakoa baizik. Bilbon Euskal Autonomia Erkidegorako hiltegi bakarra ipintzearen aldekoak dira eurak.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

Martitzenean batuko dute baserrietako plastikoa

Hurrengo bilketa irailaren 28an egingo dute

A.I.

Martitzenean, hilak 27, jasoko dute baserri ingurunean sortutako plastikoa. Hurrengo bilketa ez dute egingo irailaren 28ra arte. Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak arduratzen da zerbitzu hori eskaintzeaz.

Datorren asteko martitzenean, uztaileak 27, jasoko dute baserri ingurunean sortutako plastikoa. Honako plastikoa motak batuko

dituzte: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen dena; negutegietan eta baratzeetan erabiltzen den plastiko beltza eta negutegietako plastiko zuria. Plastikozko sokak, aldiz, ez dituzte batuko.

Plastikoa dagokion lekuan martitzen arratsaldean lagatzeko eskatu die baserritarrei Landa Garapen Elkarteak. Ondoko taulan azaltzen dizuegu herri bakoitzean zein tokitan laga behar den plastikoa.

Hurrengo plastiko bilketa irailaren 28an egingo dute; urtea bukatu aurretik beste bi bilketa ere egingo dituzte, azaroaren 23an eta abenduaren 28an, hain zuzen ere.

Beste egun edo toki baten plastikoa laga nahi izanez gero, honako telefono zenbakira deitu dezakezue: 943 76 25 47.

ELGETAN ETA ARAMAION EZ

Debagoieneko herri gehienetan jasotzen du Landa Garapen Elkarteak plastikoa; Elgetan eta Aramaion, baina, ez du zerbitzu hori eskaintzen.

Aramaioaren kasuan, plastikoa beste erakunde batek jasotzen du: Gorbeia inguruko partzuergoak, hain zuzen ere. Partzuergo horixe arduratzen da Aramaion gainerako zaborrak jasotzeaz ere.

Elgetaren kasuan, berriz, Landa Garapen Elkarteak ez du herri hori bere egutegian sartzen, bertako baserritarrek ez dutela interesik agertu. Dena dela, hala nahi dutenean, zerbitzu hori jasotzeko eskubidea badute eta eskatu besterik ez dute egin behar.



GOIENKARIA

Mankomunitate gehienak agertu dira errauskailua Donostian jartzearen alde.

Gipuzkoako errauste planta Donostian jarriko dute

Astelehenean hartu zuen erabakia Jarraipen batzordeak

A.I.

Gipuzkoako bigarren errauste planta Aritzetan, Donostian, jartzea erabaki du Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko Jarraipen batzordeak. Bergara zen errauste planta jartzeko kokaleku posibleetako bat.

Astelehenean, hilak 19, egin zuen batzarra Jarraipen batzordeak; aukeraketa bozketa bidez egin zen. Mankomunitateetako presidentek eta errauste planta jartzeko hautagai ziren zortzi herrietako alkateek parte hartu zuten. Horieta herri bat zen Bergara, baina, azterketa teknikoaren arabera, ez zen kokapen egokiena.

Odon Elortza Donostiako alkatea errauste planta Donostian kokatzearen aurka azaldu zen; "erabakia politikoa" izan dela-eta, ez zuen bozketan parte hartu.

HAINBAT TALDE, ERABAKIAREN AURKA

Hainbat talde azaldu dira erabakiaren aurka: Greenpeace talde ekologistak, esaterako, erabakia hobeto pentsatu eta dauden alternatibak ondo aztertze eskatu dio Diputazioari. Errauste plantaren aurkako Baga Boga plataformak, berriz, adierazi du kokapena baino, errauste planta egiteko erabakia bera dela kezagarria. Bata-sunak ere adierazi du errauste planta ez duela beharrezko ikusten, eta hainbat alternatiba proposatu ditu.

LABUR

Eskoriatzako PSE-EEk Diputazioaren jarrera salatu du

Eskoriatzako PSE-EEko zinegotzi Iñaki Pierruguesek Gipuzkoako Diputazioak Eibar-Gasteiz autobideko Eskoriatza-Arlaban zatiaren inguruan izan duen "jarrera harroa" salatu du. Gainera, proiektua onartzeko prozesua irregulartasunez beteta egon dela eta Diputazioak indarrean dauden legeak ez dituela errespetatu salatu du. Eskoriatzako Udalean autobidearen gaia aztertze sortutako batzordeak hartutako erabakiei jaramonik ez diela egin ere salatu du.

Autobidearen zati berria zabalduko dute Bergaran

Datorren egunean, hilak 29, zabalduko dute Eibar-Gasteiz autobideko bigarren zatia, Bergarako iparraldetik hegoaldera doana, hain zuzen ere.

4,2 kilometroko luzera du tarte horrek, eta tunel bat dauka, San Martzialgoa, 1,2 kilometrokoa. Ondartzako lotunean hasi eta Telleria pareko lotunera arte doa datorren astean zabalduko duten tarteak. 0,45 euro kostako zaigu lau kilometro horiek egitea.

Aurreikuspenen arabera, datorren urteko udan zabalduko dute hurrengo zatia, Bergaratik Arrasaterainokoa, hain justu.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18


Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



BERGARA

'Aupa Etxebeste' filma errodutzen hasiko dira Bergaran, abuztuaren

Telmo Esnal eta Asier Altuna *Aupa Etxebeste* izenburuko film luzea errodutzen hasiko dira abuztuaren, Bergaran. Ramon Agirre, Elena Irureta eta Iban Garate daude aktoreen zerrendan, besteak beste.

'CASTING' PROBAK EGUAZTENEAN

Filmaketa abuztuaren 23an hasiko da Bergaran. Herriarrek parte hartzeko aukera izango dute. *Casting* probak egingo dira eguaztenez, hilaren 28an, kultura etxean, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era. 25 urtetik gorakoa izatea beharrezkoa da. /E.M.



GOIENKARIA

ANTZUOLA

Begoña Egaña bigarren geratu da 'La flecha amarilla' saioan

Astelehenean, hilak 19, jokatu zuten *La flecha amarilla* lehiaketako finala. Aitor, Vicente eta Begoña iritsi ziren lehiaketa horretako finalera; Patxiren aurka proba bat jokatu eta irabazi ondoren lortu zuen antzuolarrak finalerako txartela. Programan zehar, Vicente finaletik kanpora geratu zen, boto gutxien jaso zituelako. Gauzak horrela, Begoñaren eta Aitorren artean zegoen lehia. Azkenean, Aitor bilbotarrak irabazi zuen 18.000 euroko saria. Hala ere, Begoña pozik azaldu zen finalera iritsi zelako. Antzuolatik hamabost bat lagun joan ziren Miramonera, Begoñari animuak ematera. Programaren ondoren atera zuten honako argazkia, Begoñarekin batera. /AINTZANE IRIZAR

ARAMAIO

Datorren astean, oporren aurreko azkeneko osoko bilkura egingo dute

Gai faltagatik, astebetetz atzeratu du Aramaioko Udalak oporretara joan baino lehen egingo duten batzarra. Datorren eguaztenez izango da. Eta landu beharreko gaien artean, badira bi nabarmenezkoak. Batetik, 80ko hamarkadan sortutako eztabaida baten gaineko erabakia hartu beharko dute. Hain zuzen ere, Albinan, ganadua errepidera ez ateratzeko ipini zuten hesiaren gainean. Bestetik, udal zerbitzuen esleipena ere aztertuko dute. Seguru aski ez dute lortuko oporrak baino lehen egitea guztia. /U.M.

ELGETA

Gela bat egokitzen dihardute eskolan haurreskola irailan zabaltzeko

Oraindik data zehazteke badago ere, irailan irekiko ditu ateak 0 eta 3 urte bitarteko umeendako Haurreskolak. Behin-behineko kokapena Herri Eskolan izango du, eta horretarako gela bat egokitzeko lanetan dihardute beheko solairuan. Gela bera egin dute eta orain margotzea eta lurra ipintzea falta dira, eta gero irailan faltariak jarriko dituzte. Erabilera askotariko gela bat izango da eta umeak egoteko txoko bat ez ezik, sukaldea, lo egiteko lekua eta komunak ere izango ditu. /I.A.

OÑATI

Musika, antzerkia eta zirkua proposatzen ditu Gaztelekuak udarako

Aurten ere, *Kalean 2004* egitaraua antolatu du Gaztelekuak udarako: musika, antzerkia eta zirkua dira aurtengo proposamenak. Aurreko urteotan zinea ere sartu dute udako programan, baina aurten zinea kendu eta horren lekuan zirkua sartzea erabaki dute. Horixe izango da aurtengo aldaketa nagusia. Zirkua inguruko bi ekitaldi izango dira: zirkua ikuskizuna abuztuaren 29an, eta zirkua tailerra abuztuaren 28an. Sebastopoleko Titiriteroek zirkua egiteko elementuak ekarriko dituzte herriko plazara, eta edonork har dezake parte.

Zirkuaz gain, ordea, antzerkia eta musika ere ikusi eta entzun ahal izango dira udan Oñatin. Trapu Zaharra antzerki taldeak, adibidez, *Elvis fan hadi!* antzezlan eskainiko du plazan abuztuaren 20an. Uztailearen 30ean, Banda Munizipala Oñatiko taldeak kontzertua eskainiko du beste talde batekin batera

San Anton plazan eta irailaren 4an, Afrika Bibang beste talde batekin batera arituko da Atzeko kalean.

BARRUTIK KALERA

Helburua horixe da, alegia, udarako antolatu diren ekitaldiak kalean egitea, eta kaleko hainbat gunetan egitea, gainera. Aurten, herriko plazan, San Anton plazan eta Atzeko kalean egingo dituzte. Honekin batera, herriko taldeen lanak ere egitarauan sartzea da beste helburu bat; antzerki tailerrak egindako lana, film laburrak eta musika taldeen kontzertuak, besteak beste. /O.E.

Zertzelada

Bederatzigarren urtez, barrutik kalera atera dituzte udarako proposamen kulturalak. Herriko hainbat gunetan egingo dituzte.

ARRASATE

Lan hitzarmenaren alde protestatzeko egun osoko grebak egiten hasi dira

Lan hitzarmena negoziatzearen alde protestan dabilzan udal langileak egun osoko grebak egiten hasi dira Arrasaten. Oraingo astean egin dute aurrenekoa, eta dagoeneko irailerako iragarri dute beste bi greba egun. Eta jakinarazitakoaren arabera, arazoa konpontzen ez den bitartean, hileko egun bat

gehitu dute protestaldiari.

Bestelako protestaldiak egiten ere segituko dute langileek. Adibidez, atzo, eguea, udalbatzarrak egin zuten osoko bilkuran adierazi zuten euren jarrera; eta iragarri dute datorren eguaztenez Mankomunitateak egingo duen batzarrean ere izango direla. /U.M.



U.M.

Askok egin zuten alferreko buelta udaletxera eguaztenez.

ARETXABAETA

Datorren astean banatuko dute Andramaixetako jai egitaraua

Gertu dauka Kultura Sailak abuztuaren 14tik 17ra bitartean aretxabaletarrek ospatuko dituzten Andramaixetako egitaraua. Aurtengo jaiak 54 mila eurotik gorako aurrekontua dute, eta berrikuntzen artean hainbat ikuskizun izango dira: T'ombigo antzerki taldearen eskutik *Katxi-batxe de cucina* antzezlan eta dantza, trikitixa eta bertso-larritza batzen dituen Xukan taldearen *Iturrian zer dago?* ikuskizuna. Gainerako ekitaldiak urterokoak izango dira: txirindulari lasterketa eta sokamuturra beste batzuen artean. /M.A.

ESKORIATZA

Degurixara joango dira gaur 30 eskoriatzar asteburu pasa

Gaur, 70 lagun joango dira Degurixara asteburu igarotzera. Horietariko 35 gutxituak dira, eta beste guztiak begiraleak. Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Donostia, Legazpi, Zumaia, Lazkao eta Urretxutik joango da jendea, eta baita Eskoriatzatik ere. 30 lagun irtengo dira 18:30ean herrietik, eta domekara arte, begiraleek prestatutako ekintzetan parte hartuko dute. Behar-Zana elkarteak antolatzen duen ekimenak garrantzi handia du euren esanetan, elkarlanean edozer egiteko gai direla erakusten dute-eta. /Z.V.M.

GATZAGA

Agur esan diete gaur, datorren urtera arte, udako udalekuei

Bi asteren ondoren, agur esan diete gaur, egubakoitza, aurtengo udalekuei Gatzagan. Hamabost egun zehar denetik egin dute herriko neska-mutilek: kalean jolastu, herri inguruetan ibilaldiak egin... Gainera, aurreko zapatuan kanpaldia egin zuten euren gurasoekin batera Dorletan. Baina ez da hemeretzi lagunek egindako irteera bakarra. Izan ere, martitzenean, Gaztainuzketako txaboletara joan eta bertan pasatu zuten gaua. Oso ondo ibili direla adierazi dute guztiek. /Z.V.M.

Irailean egingo du urtebete Ignacio Lakuntzak Mankomunitateko presidente. Eta, hain zuzen ere, astebete gelditzen zaio udako oporrak hartzeko; hala, urteko balorazioa egiteko eskatu diogu ikasturte berriari ekin aurretik.

OIHANA ELORZA

Oporrak hartzeko gogoia ala beharra?

Aurten, biak. Hilabete bukaeran hartuko ditut eta dagoeneko kontatuta ditut lanegunak.

Urte gogorra izan duzu?

Balorazio orokorra positiboa, baikorra dela esango nuke. Egia da arazoak izan ditugula, baina arazoak izango nituela kargua hartu aurretik ere banekien. Hala ere, uste dut gai garesta eta gai izan garesta arazoak konpontzeko.

Zeintzuk dira denbora honetan izan dituzuen arazoak?

Paretoren legea gertatzen da gai batzuetan, hau da, denbora luzeegia pasatzen dela arazo batekin, eta askotan gai hori ez dela garrantzitsua.

Hala ere, gai batzuk aipatzearen, azpiegitura eta etxebizitza gaietan, adibidez, nahiko aurreratu dugula uste dut. Konbenio batzuk sinatu ditugu etxebizitzaren plan berria aurrera eramateko; egitasmo orokorra nahiko aurreratuta dago, alegaziei erantzutea bakarrik falta da.

Horiez gain, beste proiektu asko ere martxan daude, Akeiko proiektua, adibidez. Biteriko aparkalekua, aldiz, atzeratu egin da greben eraginez, baina lanean dihardute berriro. Olandixoko tunela ere onartuta dago, Diputazioaren eskuetan dago proiektua eta lehiaketa eginda dago, nahiz eta oraindik esleipena eman ez duten. Zeinek egingo duen esatea bakarrik falta da.

Zubillagako hiltegia arazoaren artean egongo da ba?

Bai, eta hori da *Paretoren legea*-ren ondorio bat. Eztabaida luzeak izan ditugu. Aste honetan bertan, martitzenean, eskualdeko alkateak batu gara, eta alkateen arteko bilera egin dugu. Bilera horretatik proposamen berri bat atera dugu, herri bakoitzean datozen osoko bilkuretan aurkezteko.

Zein da proposamen hori?

Erdibide bat aurkitu dugu: sei hilabete luzatuko dugu epea. Hau da, datorren urteko apirilaren 30ean erabakiko da hiltegia itxi egingo den edo ez.

Bitartean, baliagarritasun plana egitea eskatuko diogu sektoreari. Beraiek hartu behar dute ardura eta ea sei hilabete epe honetan hiltegia bideratzea lortzen dugun.

Zergatik hartu duzue erabaki hori orain?

Egoera nahasi samarra zegoela ikusi dugu eta adostasuna lortzeko asmoz jarriko dugu proposamen hau mahai gainean.

Sektoreak badu parterik proposamen honetan ala soilik alkateon ideia izan da?

Bi hilabete izan ditugu hiltegiarekin zerikusia duten sektoreko hainbat aldekin hitz egiteko. Epea urtebetez luzatzea proposatu genuen eta azkenean erdibidea aurkitu dugu, sei hilabetez luzatzea, alegia. Datozen sei hilabeteetan badago denbora handik aurrerako egoera zein izango den aztertzeko.

Beraz, irtenbidea bila dezakezue oraindik. Itxiera ez da segurua.



GOIENKARIA

Ignacio Lakuntza

MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA

“Urtebete honetako arazoak konpontzeko gauza izan garesta uste dut”

DEBAGOIENA LOTUKO DUEN TRANBIA
“Guk egindako proposamenak eta aldaketak adostu ditugu Jaurlaritzarekin eta irailean jarriko da jendaurrean tranbiaren behin betiko ibilbidea”

EGIBARREK LIZARTZAN HARTUTAKO ERABAKIA

“Nik neuk ez dut ondo ikusi Egibarrek hartutako erabakia, herri guztiak atzetik etor baitaitezke arazo berarekin; irtenbidea Alderdien Legea desegitea da”

Ez. Guk azaro inguruan plan bat aurkezteko eskatuko diogu sektoreari eta apirilaren bukaeran denak bukatuta, erabakia egon beharko du.

Dena dela, Mankomunitateak erabaki du abereak beste hiltegi batzuetara eramateak duen gain kostua berak ordainduko duela.

Bai, baina hori lehengo egoerarekin lotutako erabakia da. Orain epea luzatzea erabaki dugu eta dirulaguntza hori zintzilik gelditu da, airean. Izatekotan, 2005.eko

apirilaren 30etik aurrera emango da laguntza hori.

Gipuzkoako bigarren errauskailuaren kokalekua erabakitzea Mankomunitateen esku zegoen. Azkenean, Donostiako Aritzeta gunean egitea bozkatu duzue.

Bai. Kokalekua erabakitzeko komisioa sortu zen eta Mankomunitate guztiok hartu dugu parte, Txingudik izan ezik. Zazpi Mankomunitate eta Diputazioaren artean, leku bat aukeratzeko prozesua jarri genuen

martxan. Enpresa aditu batek bederatzi kokaleku proposatu ditu, eta asteleheneko bileran, Aritzeta kokatzea erabaki genuen. Dena dela, erabaki hori Mankomunitatean konfirmatu behar da, hurrengo Gobernu batzordean.

Odon Elortza oso haserre dago.

Nik uste dut antzerki pixka bat ere egin duela. Aurretik ere bazekien berak auktura asko zituela. San Marcos komunitateak zaborraren %60 du eta azpiegitura eta garraio aldetik ere aukerak zituen. Berak ere eskatu ditu garantiaz batzuk proiektu hau garatzeko, eta berme osoa izango duela esan diogu.

Udal langileek negoziatorako borondate falta leporatu dizute.

Hainbat komisio ditugu hemen, negoziatorak izan dira eta gauza batzuk lortu ere lortu dira. Aurretik ere esan genuen mahaia sektoriala zela eta Eudelen bildu behar zutela hango partaideek eta sindikatuek. Borroka guztiz politikoa izan da, sindikatu, Eudel eta Jaurlaritzaren artean, eta guk ez dugu zer eginik hor.

Aste honetan, eguaztenean, greba egin dute Arrasateko Udaleko langileek; pikeak egin dira eta batzuei ez diete lanera sartzen utzi. Lan eskubidea greba eskubidearen gainera dago, eta aste honetan hori hautsi egin dute.

Zer iritzi duzu Lizartzan Joseba Egibarrek hartu duen erabakiari buruz?

Nik neuk, ez dut oso ondo ikusi erabaki hori, herri guztiak etorri baitaitezke atzetik arazo berarekin. Aurretik eztabaida luzeagoa izan behar da eta estrategiak bilatu eta aztertu behar dira. Euzkadi Buru Batzarrek hartu duen erabakiarekin ados nago; herri bateko arazo gaindituz gero, istiluak sor daitezke beste batzuetan.

Denon arteko arazo da. Baina nork eman behar ditu pauso guztiak? Baloia zelai erdian dago eta alde biek beste aldean dagoela uste dute.

Eta zein da irtenbidea?

Alderdien Legea alde batera uztea. Lege horrekin ez dago irtenbiderik, desegin egin behar da.

Zein gai geldituko dira zintzilik oporretara joan baino lehen?

Datorren astean Zubillagako hiltegiaren gainean hitz egingo dugu Mankomunitatean eta, horrez gain, egitasmo orokorreko alegazioak geldituko dira irailean erantzuteko, baina arazo potoloena hiltegiarena da.

Nola dago tranbiaren gaia?

Tranbiaren proiektuak bere bidea jarraitzen du. Guk aldaketa batzuk egin genizkion Jaurlaritzak hasieran aurkeztu zituen planoei. Aldaketa horiek aztertu egin dituzte Gasteizen eta jaso dugu hango erantzuna. Puntu batzuk eztabaidatu ditugu eta azkenean adostasun lortu dugu. Irailean jendaurrean jarriko da tranbiaren behin betiko ibilbidea.

Zein erronka nagusi duzue esku artean irailetik aurrera begira?

Egitura. Azterketa egin genuen egitura politikoa eta teknikoa adosteko. Politikoa martxan jarri genuen, baina teknikoan aldaketa txiki batzuk egin behar ditugu politikoarekin bat etortzeko. Irailean hasiko gara proiektu horrekin eta pixkanaka-pixkanaka egingo dugu aurrera horrekin.

Errepideetako seinalizazioaz ere jende asko kezkatzen da. Baduzue asmorik horren inguruan zerbait egiteko?

Egia esan, nik ez dakit zein lege dau den hori erabakitzeko. Badakit muturreko herriek lehentasuna dutela lege horietan eta erdian edo alboan gelditzen direnak galtzen irtetzen direla. Zirkulazio legea da hori eta askotan zaharkituta gelditzen dira zirkulazio legeak.

Gutunak

PNV-Ez Adarrik Jo!

Diruek txakurrei be dantzan eraitten ei dotse! Zergatik dio bere idatzian Aramaioko PNVk Udalean norbaitek ez zegokion dirua eskuratu duela publikoki salatu dugulako manipulatzailak, iraingarriak, mehatxugarriak, difamatzaileak eta gezurtiak garelako EH-Batasuna eta Hamalau?

Munduan zehar, baita hemen be norberana ez danaz jabetzen danak izen ezberdinak hartzen ditu eta jakina da baita munduko leku batzuetan ohituren arabera normala dela hori eginez gero eskuak moztea. Hemen zorionez ez! Gure herrixen aurreko udal hauteskudetan boto gehien jaso zituen EAJ/PNVko zerrenda buru eta herritar guztion alkate izan zen eta gaur egun Arabako Batzar Nagusietako batzarkidea den Iñaki Nafarratek, berak asmatutako legediak arautzen duenaren kontra eginez, gaixotasun arrazoiengatik karguari izateari utzi zion alderdikide zinegotziari zegokion lehengo kilo erdia irregularki kobratu zuen... eta?

Itzuli zuten, ez herritar arruntok pagatzen moduan, atzerapenik eta interesik ordaindu gabe. (Portzierto mugimendu monetario irregular hauek ez dira inolako udal aktetan agertzen).

Eta hau guztia salatzeagatik eskua bota eta harria ezkutatzeko salaketa egin diguzue, difamatzekoa, akusatzekoa, mehatxatzekoa, iraintzekoa, manipulatzekoa esan duguna egi hutsa izan arren; aldiz gure herri honetan esku luzea, ebazlea, bera dala herriaren alde lan egiteko prest dagoena, udal gaietan esperientzia duena, herritarren bizi kalitatea hobetu nahi duena sinistuarazi nahi izan duzue. Erakutsi beza Aramaioko PNVko Uri Buru batzarrak udal arautegiaren kontra Iñaki Nafarratek ipurdi batekin bi aukitan esertzeagatik bietakoa kobratu izana esaten duzuen moduan herriaren alde egiteko izan zela, herritarren zerbitzuak hobetzeko!

Baita erakutsi gura izan digute dirua itzuli duzuela? Beharbada norbait pentsatzen egongo da PNVren ideologia "kristau"-demokrataren eraginez eta eliza ama katolikoaren zarpigarren agindua betetzeagatik itzuli duzuela dirua? Ba ez, harria bota, eta burua gorde gabe tente izan eta benetan herritarren diruak eta interesak zaintzeko beti gai izan den Euskal Herritarroken zinegotzia ohiak egindako salaketari zor dio gu hau.

Prepotentziaz idatzi duzue Aramaioko herriak ez dituela nahi udalean horrelako pertsonak zuek ondotoxoa jakin arren egindako azken udal hauteskudeetan ezker abertzaleak lortutako emaitzak historia osoko onenak izan direla udalbatzako zinegotzian herena lortuz. Ez da izango ba orain

gertatzen den moduan inolako oposizioarik gabe eta pentsamentu bakarrak esaten duen moduan gura duzuen guztia egin ahal izateko inolako kontrolik gabe? Zergatik ukatu bestela azken udal hauteskudeetan hAMAlauk lortutako hiru zinegotziak?

Ondotoxo ezagutzen gara herri txiki honetan harria bota eta eskua gordetzeko jolasetan ibiltzen garelako besteak salatzeke; beharbada Aramaioko EAJ-ren Uri Buru Batzarrak azaldu behar du zergatik sinatzen zuen dirua itzultzen zuten taloia korporatiboki alderdi gisa ..ez zen ba, froga guztiak ezkutatuharian eta etorkizunean norbaitengan zor zitezkeen erantzun penalak ekiditeko asmoz izango?

Jakin ezazue hemendik aurrera ere harria botatzeko motiborik ematen baduzue, burua betik bistan eta tente izango dugula eta lapurra jo eta honen botina herriari itzultzea lortzen badugu harro sentituko garelako!

Oharra: hAMAlaukook demokratikoki lortutako eta zuok lapurtutako hiru zinegotzi postuak lortu arte aurrean izango gaituzue.

HAMALAU
Aramaioko

Kaixo, gazte

Arrasateko gaztetxearen urteurrena orain oso gutxi bete da eta urtebete zutik eta bizirik irautea ez da gutxi eta are gehiago izan diren zailtasunak kontuan hartzen baditugu.

Arrasateko gazte asanbladatik argi eta garbi utzi nahi dugu gaztetxea herriko gazte guztien dela, ostiral gauetan 22:30ean egiten diren asanbladak irekiak (gazte guztiei zabaldua) direla eta gaztetxe honen aldeko borroka eta lanean edozeinen laguntza beharrezkoa dela. Hau guztia, ordea, zapuztua ageri izan zaigu sarritan urte luze honetan guztian zehar.

Irainak, diru lapurreta garrantzitsuak eta barraren erabilera desegokia, neurritz kanpoko askorentzat, dira eta izan dira jasandakoak, eta guzti hau denok batera nola edo hala moztea beharrezkoa da. Gaztetxea da gaur egun herri gehienetan gazteok gure eremu askatzaile gisa erabiltzeko dugun aukera garrantzitsuenetarikoa, garrantzitsuena ez bada, beraz eutsi diezaiozun aukera honi. Arrasateko gazte asanbladatik deialdi irekia egin nahi genioke Arrasateko gazteriarri aurretik aipatutako asanbladetan parte har dezan.

Beste alde batetik ezin aipatu gabe utzi Arrasateko Udalaren jarrera, komunikazio bideak moztzen dituelako eta San Juan jaietan beste behin ere herritarrek baztertu eta hauen eskubideak zapaltzen aritu delako.

Agurtzeko azken deialdiaz bat egin dezazuen nahiko genuke eta guztion artean gaztetxea eraikitzen jarraitu dezagun. Besterik gabe agur bero bat gaztetxearen eta gazteon alde lanean eta borrokan ari zareten guztioi. Gaztetxea zutik eta bizirik!

ARRASATEKO GAZTETXEKO BATZARRA
Arrasate

Gezurrak
gezurtatzen aspertu
gara!

Iazko maiatzeko hauteskudeetan legez kanpo geratu ziren hainbat herri plataforma. Penagarria izan zen denontzat. Espainiako legediak beste alderdion eman zizkigun plataformei zegokien karguak. Alderdiok bi aukera genituen, egoerari probetxua atera edo zintzo jakatu eta ez zegokigun kargurik ez hartu. ARALAREk ez zuen ez zegokion kargurik hartu. Bakar bat ere ez, Leitzakoa salbu, eta hura herriko plataformarekin adostuta, ez zegokion alkatetza UPNren esku ez uzteko bide bakarra zelako. Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan, adibidez, kargu bana dago hutsik, guk hartu ez dugulako. Eta hori ARALAREk bakarrik egin du. Beste alderdiek egoerari probetxua atera diote, hainbat alkatetza, gehiengoak leku gehienetan, dagoiena baino ordezkari handiagoa beste lekuetan... Ez dira borondate politikoaren mailako kontuak, etika politikoaren mailakoak baizik.

Egoera honen aurrean, Batasuna eta herri plataformen ordezkariak denok zaku berean sartu gaituzte. Gehiago oraindik: sistematikoki gezurra eta manipulazioa erabili du ARALAREN aurka, hartu ez dituen aukerak hartu izana prentsurrekoetan salatuz, karguak hartu ez dituzten gure zinegotzian izenabizenak karteletan ipiniz, etab. Hauentzat arerio politikoaren aurka denak balio du! Bailarako plataformetako ordezkariak ere sartu dira joko honetan eta behin baino gehiagotan egin diote uko egari.

Oraindik ere inork zalantzarik baleuka, manipulazio eta gezurrek eraginda edo, Udalbatzen aktak irakurri besterik ez du egin behar, Udalbatzetan hartzen baitira karguak. Gure aldetik komunikabideei ere bidaliko dizkiegu ez dagozkigun karguak hartu ez izana ziurtatzen duten agiriak, behingoz datu objektiboak eman ditzaten eta ez orain arte bezala nahasmena sortu, batzuenak eta besteonak iritzi subjektiboak baillan agertuz.

Ez dagozkigun karguak ez hartzea jokabide etikoa da, ez besterik. Baina karguak ez hartze hutsagatik ez da kon-

pontzen plataformen parte hartzearen arazoa. Horretarako bai, behar da borondate politikoa. Denen aldetik. Estatuak kendu duena denon artean artikulatzeko bidea bilatzeko. Eta borondate horren lehen erakusle elkarrenganako errespeta eta errekonozimenduak izan behar du. Eta horrek, besteak beste, gezurrak, irainak eta horrelakoak alde batera uztea eskatzen du. Eta bestetik norbera zerbait emateko prest egotea.

ARALAREk irailean jarri zuen mahai gainean herri plataformek erabaki ahalmenez eta zegokien baliabideez beste ordezkari politikoei bezalaxe parte hartzeko proposamena: praktikan zinegotzi gisara eta sailen ardurak bere gain hartuz funtzionatzea, beste alderdi politikoaren ordezkariak oztoporik jartzen ez duten lekuetan; ordezkari horiek horrelako udalbatza legalki arriskuan jarriko luketen kasuetan, Udal Kontseiluak eratzeko, bertan erabakitakoa Udalbatza "ofizial" edo tramitezkoan berresteko konpromisoekin. ARALAREk ordezkariaren duen zerbait herritan dagoeneko horrela funtzionatzen ari gara, legez kanporatutako herri plataforma ere konforme dagoelako.

Gure bailaran, ez dute horretarako borondaterik erakutsi, ezta PNVk ere. Egibarren bidea proposatzen dute eta berau goraiatzeko, Batasuna eta AUBren buruzagiek bezala. Nor eta herritik kanpoko jendez osatutako zerrenda baten bidez, herri plataformari zegokion alkatetza bereganatu duen hori, eta berari ez dagozkion 5 karguetatik 3 plataformaren esku uzteko ahalegin hutsal eta propagandistiko bat baino egin ez duen hori? A ze hipokresia! Jaun-andreok, ez ezazue jendea gehiago engaina. Zein aitzakia erabili zuten herri plataformak legez kanpo uzteko? Aurrez legez kanpo utzitako alderdien zerrendetan egondako jendea zeukatela euren zerrendetan. Ez al da hori beste alderdiei egiteko eskatzen diozuen bidea, 182.2 artikulua? Horrek ez luke konponbiderik ekarriko, egiten duen udal taldearen legez kanporatzea baino ez. Baldin eta ez duten alderdi guztiek masiboki egiten. Gu horretarako prest agertu gara hasieratik. Denok batera estatua bidegabekeriari aurre egitearen alde. Baina batzuen jarrera besteoi leporatzea zekenkeriaz jokatzea da. Portzierto, zergatik ez duzue zuen proposamena Amezketa aplikatzen? Hipokresia noraino iritsi daitekeen!

Gure proposamenak mahai gainean dirau. Eta beti esan izan dugun bezala, beste aukera egingarri eta egiazki konponbidea bilatzen dutenei zabalik gaudete. Entzunak entzun, jasandakoak jasan, gure borondate politikoa sendoa eta argia da; besteona?

DEBAGOIENAKO ARALARREKO
UDAL TALDEAK
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENAKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Ane Berezibar
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitate)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi



SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

merkealdia

%30

%40

%50

SPORTLAND ARRASATE,
Garibai Etorbidea, 2-6,
www.forumsport.com

*Iragarki honetan adierazitako deskontuek
2004ko Abuztuaren 31 arte balio dute

EKO
DESKONTUAK

Besaideren konkistan!

Arrasateko, Aramaioko eta Atxondoko koadrilek herri probak egingo dituzte bihar

XABIER URZELAI

Arrasateren eta Atxondoren arteko III. Herri Probak egingo dituzte bihar, baina aurten berritasun nabarmena izango da, Aramaioko koadrilek ere esku hartuko dute-eta. Irabazten duenak ez du sari makala jasoko: hiru lurraldeen artean dagoen Besaideren jabetza izango du, urtebetez behintzat.

Orain dela hiru urte, Arrasateko eta Arrazolako zenbait lagun burutazioa izan zen bi herrien artean herri probak egitea. Lehenengo urtean Arrasateko koadrilak nagusitu ziren, eta bigarren urtean Arrazolakoek erabaki zuten mugak zabaltzea. Hala, Arrazola izatetik Atxondo izatera pasa ziren, eta joan den urtean eurak izan ziren irabazle.

Aurtengo herri probak bihar, zapatua, egingo dituzte Arrazolan, eta berritasun nabarmen bat izango da, Aramaiok ere ordezkari izango du-eta. Hala, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako koadrilak ibiliko dira nor baino nor. Eta saria ezin izan zitekeen beste bat izan: hiru lurraldeekin mugan dagoen Besaide konkis-



GOIENKARIA

Aurten ere izerdi galanta botako du batek baino gehiagok zaku lasterketan.

tatuko du irabazleak, urtebetez behintzat.

KOADRILA ARTEKO GIRO EDERRA

Urtetik urtera egin beharreko probetan hainbat aldaketa izan

badira ere, aldatu ez den gauzetako bat da egunean zehar egoten den giro paregabea. Arrazolako pilotalekuaren atzealdean txosna txiki bat jartzen dute, eta garga-gardoak ezin hobeto laguntzen du

giroa berotu eta egarria apaltzen. Bihar ere bero itogarria egingo duela iragarri dute, hortaz, dena beharko dute.

Herri probak Aramaion hasiko dituzte. 08:00etan, herri bakoitzeke bi ordezkari korrika egin beharko dituzte Aramaio eta Arrazola banatzen dituzten kilometroak. Gainontzeko partehartzaileak —ehun lagun inguru— autobusean joango dira Aramaioraino, eta korrikalariak lasterketari ekiten diotenean Arrazolaraino joango dira autobusean, helmugan itxoiteko. Hori izango da goizeko lehenengo proba, baina ez azkena: aizkoran, pilotan, sokatiran, zaku lasterketan, txorokil batuketan, arrautza jaurtiketan eta beste hainbat probatan lehiatu beharko dira hiru lurraldeetako ordezkariak.

PROBETAN, HAINBAT ALDAKETA

Aurten, antolatzaileek erabaki dute herri probekin batera hainbat jolas egitea. Horrela, jende gehiagok hartu dezake parte, eta umore giro onari eusteko jolas aproposenak aukeratu dituzte. Eguerdian parte hartuko dituzte probak, eta gero, bazkaria egingo dute Arrazolako elkartearen.

Kirolabur

BERGARA/PIRAGUISMOA

Beti Busti piraguismo taldekoek Espainiako Eslalom Txapelketan hartuko dute esku asteburuan. Txapelketa Orthezen izango da (Frantzia) hango erreken egoera onagatik. Espainiako Txapelketan izango dira Leire Fernandez, Markel Ceftafe, Ibon Etxezarreta, Markel Agirre, Iraitz Artola, Eneko Iturrospe eta Roberto Puy.

ORDIZIA/ZIKLISMOA

Domekan korrituko dute Ordizian Villafranca txirrindularitza proba, eta ibarreko bi ordezkari izango dira lasterketan, biak Oñatikoak: Kelme-Comunidad Valenciana taldeko Jon Odriozola eta Euskalteleko Markel Irizar. Lasterketa 09:30ean hasiko da; txirrindulariek 165 kilometro egin beharko dituzte.

OÑATI/MENDIA

Joan den asteburuan jokatu zuten Zallako Galarleiz mendiko lasterketa, eta bertan egingo dako markei esker bi oñatiarrek, Joxe Mendiolak (bosgarren lekuan iritsi zen) eta Joseba Blazquezek (zortzigarren) Euskadiko Kopan lehenengo eta bigarren postua eskuratu dute. Lehenengo bi postu horiek erakusten dute bi oñatiarrek burutu duten denboraldi biribila.

“GOMENDATZEN DIZUT...” SARIA

Oporretan bizi izan duzuna jakin nahi dugu...

Hondartza, mendi hori...
Aterpetxe, kanpaleku, ostatu hau...
Ibilbide, paraje, paisaia hura...
Herri, hiri, txoko hura...

Sariak:

- Asteburuko egonaldia Euskadiko landetxe batean (bi pertsonarentzat).
- Parte-hartzaile guztien artean hiru egonaldi zozketatuko ditugu.

Gomendioak jasotzeko azken eguna: irailaren 24a

Informazio zabalagoa:

- Arrasateko Gazte Bulegoa: 943 77 00 65 edo gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
- Bergarako Gazte Informazio Gunea: 943 77 91 57 edo gzerbitzua@euskalnet.net
- Oñatiko Gazte Informazio Gunea: 943 71 82 57 edo gip@oinatigazteleku.com



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



BERGARAKO UDALA



OÑATIKO UDALA



Nekazalturismoa



gazte
informazioa

Uda honefarako espezial

Uda honetaz gehiago gozatzeko, hona hemen aukera paregabea:
Eroso baino erosoago bidaiatzeko edota, nonahi zaudelarik,
zure muskarik atseginena entzuteko.

Zatoz kutxara eta eraman itzazu.



3.000 € 6 hilabetera edo
4.500 € 4 hilabetera
UTB %2,13



3.000 € 6 hilabetera edo
4.500 € 4 hilabetera
UTB %2,18

2004ko uztailaren 30era arte bakarrik

Eskudiruzko edo beste erakundeetako txeke bidezko sarrerentzat balio du bakarrik,
betiere 2004ko ekainaren 30eko norberaren **kutxa**ko saldoa gehitzea eragiten badute.

ABUZTUKO onena

SEKULAKO ESKAINTZAK 1etik 24ra

Irteerak BILBOTIK

475€-tik / 625€-ra
MALLORCA

475€ 8 egun / 7 gau
RIU eskaintza ***
Mantenu Erdia

400€-tik / 700€-ra
TENERIFE

400€ 8 egun / 7 gau
Chimisay ***
Hotela eta Gosaria

600€-tik / 700€-ra
IBIZA

600€ 8 egun / 7 gau
Fiesta Roulette Ibiza ***
Mantenu Erdia

MALLORCA 8 egun / 7 gau

RIU eskaintza *** / Géminis H. ***	ME	475
Sol Jamaica H. *** / Sol Magalluf Park H. ***	ME	575
Samos H. *** / RIU eskaintza ****	ME	575
Hipotels eskaintza *** / Riu Bonanza Park H. ****	ME	600
Sol Guadalupe H. *** / Riu Cala Esmeralda H. ****	ME	625

MENORCA 8 egun / 7 gau

Club Andria Aptu. 1LL occ. 3 perts.	OB	425
Las Brisas Aptu. 1LL occ. 3 perts.	OB	425
Club Andria Aptu. 1LL occ. 2 perts.	OB	525
Las Brisas Aptu. 1LL occ. 2 perts.	OB	525
Almirante Farragut H. ***	ME	750

IBIZA 8 egun / 7 gau

Fiesta Roulette Ibiza H. ***	ME	600
Fiesta San Diego H. ***	ME	600
Es Pla H. ***	ME	625
Galeón konplexua ***	GB	675
Fiesta Tanit *** H. TI / Sol Pinet Playa H. ***	ME	700

Irteerak Bilbotik, Kariberakoak eta Ibizarakoak izan ezik (hauek Madrildik). Prezioak pertsonako logela bikoitzean abuztuko irteera konkretu batzuentzat, irteera egunak kontsultatu. Aireko tarifa, karburantearen igoera, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostaturak bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia eta GB: Guztia barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**

TENERIFE - Pto. de la Cruz 8 egun / 7 gau

Chimisay H. ***	HG	400
Lavaggi Aph. ***	HG	450
Marquesa/Condesa H. ***	ME	500
Catalonia Punta del Rey H. **** / El Tope H. ****	ME	550
Atlantis H. **** / Maritim H. ****	ME	650

TENERIFE - hegoaldea 8 egun / 7 gau

Green Park Aptu. 3LL	OB	450
Fiesta Oasis Paraíso H. ***	ME	500
Iberostar Las Dalias H. ****	ME	600
H10 Conquistador H. **** / La Pinta H. ****	ME	650
Costa Adeje Gran Hotel H. ****	ME	700

KANARIA HANDIA - Las Palmas 8 egun / 7 gau

Atlanta H. ***	HG	450
----------------	----	------------

KANARIA HANDIA - hegoaldea 8 egun / 7 gau

Buenaventura H. *** / Rey Carlos H. ***	ME	525
Riu Don Miguel H. ***	ME	575
Riu Vistamar H. ****	GB	725

LANZAROTE 8 egun / 7 gau

Hotetur Teguse Golf H. ***	OB	465
H10 Lanzarote Gardens Aph. ***	ME	665
H10 Timanfaya Palace H. ****	ME	725

KARIBEA 9 egun / 7 gau

		31 Uzt. / 17 Abuz.	18-27 Abuz.	28-31 Abuz.
--	--	--------------------	-------------	-------------

DOMINIKAR ERREPUBLIKA				
PUNTA CANA				
RIU NAIBOA H. ****	GB	940	880	780
GRAN PARADISE BAVARO H. ****	GB	1.000	950	850

MEXIKO

RIVIERA MAYA				
CLUB MAEVA H. ****	GB	1.180	1.080	1.030
CANCÚN				
IMPERIAL LAGUNA H. ***	OB	980	880	880
IMPERIAL LAS PERLAS H. ***	GB	1.080	980	880

KUBA

		30 Uzt. / 19 Abuz.	20-26 Abuz.	27-31 Abuz.
LA HABANA				
GRAN CARIBE TRITÓN H. ****	HG	900	800	700
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG	1.100	1.000	850
VARADERO				
GRAN CARIBE KAWAMA H. ****	GB	1.050	1.000	800
HTL/BUNG. SOL PALMERAS ****	GB	1.300	1.200	1.000

KONBINATUA (3 gau la Habanan eta 4 gau Varaderon)				
GRAN CARIBE TRITÓN H. / GRAN CARIBE KAWAMA H. **** / ****	HG/GB	1.100	950	800

902 108 108 - viajesiberia.com

400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

VIAJES IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

GIPUZKOAKO BULEGOAK

- DONOSTIA**
- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
 - Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
 - Churruca, 8 Tel. 943 42 35 50
 - Matia, 48 Tel. 943 22 40 89

- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
 - San Martín, 6 Tel. 943 42 00 71
- ARRASATE**
- Kontzezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72
- BERGARA**
- Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70


Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko uztailaren 23a

Kultura
eta
aisialdia



Uztailaren
23tik 30era



Astegunetan auto, oporretan etxe

Eguneroko auto zein bizi izateko furgonetak gero eta gehiago ikusten ditugu Debagoiengan

Lehen karabanak ikusten genituen bezala, azkenaldian oporretan joateko furgonetak dira herriko eta kanpoko errepideotako protagonista. Lehendik bazeuden furgoneta arruntak, garraiorako-eta erabiltzen zirenak, gero jendea bidaiatzeko egokitzen hasi zirenak. Gero, horretarako propio egindako furgoneta aurkeztu zuen marka ezagun batek, eta hor hasi zen moda benetan aldatzen. Uda honetan ere, bidaiatzeko furgoneta horiek alde guztietan ikusiko ditugu.

GOIKO PARTEA JASO, ETA OHEA

Furgoneton berezitasuna da eguneroko auto familiar bezala zein oporretan joateko etxe txiki bezala erabil



daitezkeela. Izan ere, horretarako pentsatuta daude. Hasierako modeloetatik, auto-egileak arduratu dira furgonetak ahalik eta erabilgarrien egiten.

Espazioa oso ondo aprobetxatuta dago, eta ia elementu guztiek erabilera bat baino gehiago dute: eserlekuak biratu edo lekuz mugitzen dira; sukaldea, arraska eta hozkailua dute; goiko partea jaso egiten da eta ohea dago han... Oro har, etxe bihurtzen den autoa.

Ibarrean gero eta gehiagok dute halako furgoneta. Baina arazoak ere badaude: dagoen eskaera handia dela eta, guztiondako adina furgonetarik ez dagoela. /15 LEIRE KORTABARRIA



Leku librea, edonon.



Eserlekuei bira eman, eta bazkaltzeko toki; mahaia kenduz gero, armairuak, sukaldea, arraska...



Atzeko eserlekua atzera bota, eta hortxe dugu ohea.





ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



2
URTE

1.460
X
550
X
590 mm

HOZKAILUA 1FA255
265 € 44.092 pta



2
URTE

1.850
X
598
X
590 mm

HOZKAILUA COMBI 1FAC495
359 € 59.733 pta



2
URTE

800 b/min
X
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383
295 € 49.084 pta



2
URTE

1.000 b/min
X
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163
345 € 57.403 pta



2
URTE

LABEA
H21410 BN
BITROZERAMIKA
VAP1400

LABEA eta BITROZERAMIKA
345 € 57.403 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

NO FROST

5
URTE

1.850
X
600
X
600 mm

HOZKAILUA COMBI F7017
669 € 111.312 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

5
URTE

1.850
X
600
X
600 mm

HOZKAILUA COMBI F7007D
649 € 107.985 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

5
URTE

1.100 b/min
X
6 kgr.

GARBIGAILUA L7110D
529 € 88.018 pta



5
URTE

AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA

**AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA**
290 € 48.252 pta



TB THOMSON 25 DG 17 E
310 € 51.580 pta

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

ADI!
Abuztuan, goizetan zabalik!
09:00etatik 13:00etara

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

uda'04

- Etxetresna elektrikoak
- Aire girotua
- Elektronika
- Telefonía

MILAR
milar da erraza da

ELKORO
Olarte 1
ARRASATE
Tel. 943 79 18 86

BIDAIAK/ BIZILEKU BIHURTZEN DIREN IBILGAILUAK

Furgoneta bihurgarriak udarako

URTE BATZUETATIK HONA DATOR BOLADA: AUTO FAMILIAR ZEIN KANPALEKURA EDO BIDAIA JOATEKO FURGONETAK

LEIRE KORTABARRIA

Hainbat marka eta modelotakoak dira, baina denok dira furgoneta bat baino gehiago: ibilgailu ez ezik, bizileku ere badira gurean gero eta gehiago ikusten ari garen furgoneta horiek. Eskaintza baino eskaera handiagoa dagoen arren, ibarrekoak saiatsen dira euren eskuratzen.

Bidaiazteko moduak ugaritzen eta aldatzen doaz. Sasoi batean gutxi batzuek egiten zutena, alegia, autoa edo ibilgailu familiarra hartu eta bidaiari joatea, orain gero eta aukera hedatuagoa da. Hainbat auto-egilek horretarako propio diseinatutako furgonetak egiten dihardute: Volkswagen, Mercedes-Benz edo Renault dira ezagunenak.

Ezagun egiten da zeintzuk diren furgoneta horiek, izan ere, kanpoko bereizgarria da jaso daitekeen sabai mugikorra. Askok ez dute jakingo zer den: izan ere, logela antzekoa da. Sabaia jasota, ohea agertzen da. Beheko partean, atzeko eserlekua beste ohe bat bezala moldatu daiteke. Bi solairu eta bi ohe dituen furgoneta ez ote da bizileku duina, bada? Horrez gain, furgoneta gehienek oinarritzko ekipamendua dute: sukaldea, arraska, desmuntatzeko mahaitxoak...

EGUNERO ERABILTZEKO ERE BAI

Gero eta debagoiendar gehiagok dute halako furgoneta bat. Hori da Joxeba Moñux bergararren kasua. Berak hasierako modelo bat du, Volkswagen California Coach delakoa, 2002. urtekoa; hori izan zen, hain zuzen, furgoneten sukarra hasi zuena eta erreferentzia moduan geratu dena. Moñuxek esaten digunez, "kan-



JOXEBA MOÑUX

Kanpalekuan geldituz gero, kanpadenda erants dakioko furgonetari, eta bizileku oso txukuna moldatu.

paldian edo mendira joateko erabiltzen dugu guk. Lehen, lo-zorroekin ibili behar izaten genuen. Furgoneta honek ez ditu berriagoak dituzten baliabide guztiak, baina guretako nahikoa da; izan ere, eguneroko auto bezala ere erabiltzen dut, eta berriagoak horretarako handiegiak iruditzen zaizkit". Bi beharrak asetzen dituzte, izan ere, furgoneta horiek: berriak ez daude 30.000 euro azpitik. Horrez gain, egokitzapen lanek 375 eurotik 1.700 eurora bitarteko kostua izan dezakete. Inbertsio handi hori dela-eta, gehienak ahalik eta hobeto amortizatzen saiatzen dira.

Karabanen aldean, hainbat abantaila azpimarratzen dituzte zaleok: erabilgarriagoa eta erosoagoa dela, eta konpontzeko errazagoa eta merkeagoa.

BIGARREN ESKUKO MERKATUA

Inbertsio handia dira furgoneta horiek. Eskaera handiak eragin du prezioak oso altuak izatea. Hori dela-eta, jendeak ondo begiratzen du ezer erabaki aurretik. Juan Carlos Poza bergararrak badu furgoneta bat, orain pare bat urtekoa. Lehen garraiorako erabiltzen zen furgoneta da, eta Juan Carlosi txiki geratu zaio. Baina berria erosteko zailtasunak ditu:

"Berriak garestiegiak dira. Begira gabiltza ea non eros dezakegun bigarren eskuko bat. Edozelan ere, honekin asko bidaiatu dugu: iaz, Britainiaraino joan ginen".

Interneten, salmenta eta erosketa eskaintzak barra-barra daude, baina prezioak eskaeraren parekoak izaten dira. Baina askok dute oraindik propio horretarako eginda ez dagoen furgoneta, Juan Carlos Pozak bezala. Horiek ez dute bigarren solairurik, baina duin moldatzeko aukera bada: Gipuzkoa zein Arabako hainbat tailerretan, armairuak eta tiraderak, ohe txiki bat edo eramateko komuna eros daitezke.

Erosi nahi, eta ezin


Bezero guztion ahotan dagoen kontua da gaur egun furgoneta bat erosteko dauden arazoak. Debagoieneko familia bat iazko udaberrian hasi zen erosteko asmotan; bila hasi ziren, azkenean erosi zuten... eta oraindik ekarriko dioten zain daude. Mercedes Marco Polo modelo aukeratu zuten, baina arazoak daude guztiekin. Erosi ere, ia-ia zer erosten ari ziren ikusi gabe erosi zuten, autoa Alemaniatik, lantegitik, ekarri behar dutelako. Prezioa ere ez da makala: "Berriak 36.000 euro inguru kostatzen dira, eta guk begiratu genituen bigarren eskukoak, proportzioan, oraindik garestiagoak ziren", diosku familia horrek.

Arrasateko auto kontzesionario batek dioskunez, arazoa da gurean "oso merkatu berria" dela. Hori dela-eta, erostea zaila da, eta prezioak neurritz kanpo igo dira. "Marka guztietan ere, ekoizpena oso baxua da. Luze itxaron behar da". Eragina izan du baita furgoneton egileek dagoeneko mardulak diren merkatuei lehentasuna ematen dietela. Esaterako, Japonian oso gogoko dituzte furgonetok, eta Volkswagen eta Mercedes etxeak hara bideratzen ari dira furgoneta egin berriak.

Gasa, elektraindarrak eta edateko ura

Furgonetek bizileku duin baten baliabide guztiak eskaintzen ditu: oinarritzko sukaldea, lo egiteko lekua, miniaturako egonlekua... Modelo berriek komuna ere badute. Eta jakina, edozein etxebizitzak bezala, furgoneta gehienok elektraindar sarea, edateko ura, berogailua, gas sukaldea... ere badituzte.

Alboko argazkia Volkswagen California Coach bati -modelo hedatuenerarikoa bat- dagokio. Goian agertzen da ur-deposituaren itxiera, eta behean, berriz, entxufeak. Modelo horrek edateko urarendako 53 litroko gordetgia du, eta hori txikienarikoa da; modelo berriago batzuek 160 litrokoak ere badituzte. Horrez gain, ur zikina biltzeko beste gordailu bat du, kanpalekuren batera iristerakoan husteko.



Bestalde, bizileku moduan propio prestatutako furgoneta guztiek dute berogailua, sukalderako argia, hozkailua...

Orain, auto egileek gero eta potentzia handiagoko baliabideak ipintzen dituzte. Gurean, oraindik zailak dira aurkitzen, baina, denborarekin, gero eta ugariagoak izango dira, seguru. Oinarritzko furgonetek, adibidez, ez dute berez komunik, ez eta ipintzeko aukerarik ere; eramateko komuna ipintzen dute batzuek. Baina furgoneta berri eta handiagoak bainugelaxoarekin datoz: komuna, dutxatzeko lekua, konketa, armairutxoak... dituzte. Bestalde, kanporako entxufeak 220 watekoak dute batzuek; edo 90 litroko hozkailua (txikienetan, 40 litro ingurukoa izaten da)...

Norberak egokituta

Garestiak dira, berez, furgonetak. Gero, hainbatek erabakitzen dute Andoain, Langraitz edo Tolosan dauden tailer espezializatuera eramatea, han egokitu ditzaten: batzuek baliabide gehiago ipini nahi izaten diete; besteek furgoneta sinpleagoak erosi eta han egokitzea eskatzen dute. Horrek guztiak, jakina, aurrekontua igotzen du. Horri alternatiba bezala, jende askok erabakitzen du furgoneta euren kabuz egokitzea.

Hori da Aitziber Aranburuzabala eskoriatzarraren kasua. "Ordenagailuz egin genuen diseinua; egurra merke saldu ziguten, eta arotzaren laguntzarekin, geure gustura moldatu genuen". Gutxiago gastatuta ere, txukun egokitzeko modua dago: Aitziberren furgonetak ohe bihurtzen den eserlekua du, bi armairu... Ez du elektraindarrik, ez eta urik ere, baina bertan lo egin eta gustura egoteko moduko lekua da.

Uztailak 23-30

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MATRIKULAK

DEBAGOIENA

► **UNEDen aurre-matrikula egiteko** azken egunak dituzue. Hain zuzen, hilaren 30a, egubakoitza, duzue mugaeguna. Horretarako, euren bulegora jo (Bergarako Herriko Plazan), deitu 943 76 90 33 telefonora edo jo www.uned.es/ca-bergara webgunera.

DEIAK

ARAMAIO

► **San Martin jaietako argazkiak** Udalaren Internet webgunean daude ikusgai. Galeria handia da, eta jaietako unerik onenatariko asko agertzen dira. Horretarako, jo www.aramaio.org webgunera.

ARRASATE

► **Musakolako kiroledegia** honako ordutegia izango du udan: astegunetan, 08:30-21:30; asteburuetan, 08:30-21:00. Kanpoko igerilekuak zabalik izango dira egunero, 09:30etik 20:30era bitartean.

BERGARA

► **Arantzazu eta Loiolara** errozesaldia deitu dute etzirako, domeka. Autobus geltokian bilduko dira, 09:30ean. 6 euro da txartela, eta bazkaria nahi dutenek beste 14,5 ordaindu beharko dituzte. Txartelak honako lekuetan daude salgai: Agirrebeña (San Antonio), Zerkauzi (Ozaeta) eta Zatoia (Barrenkalea).

DEBAGOIENA

► **Landa-guneetako plastikoa** bilduko du Deba Garaia Mendi Nekazaritza elkarteak martitzenean, hilak 27. Siloa estaltzeko, belar-metetan erabiltzeko eta negutegi eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, eta negutegirako plastiko zuria bilduko dituzte. Ohiko lekuetatik pasatuko dira; noizbehinka, alde zurretatik telefonoz deituta, beste hauetatik ere pasatzen dira: Udala, Bedoña eta Garagartza (Arrasate), Dorletako bidegurutzea (Gatzaga) eta Elosu eta Santutxu (Bergara). Hori eskatu edo bilketa lekuren bat aldatzeko, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira.

ELGETA

► **Salbador jaiak** egin behar diren edo ez erabakitzeko batzarra izango da astelehenean, hilak 26, Patxi tabernan, 21:00etan.
► **Espainiako Gerra Zibileko hilobien** inguruko ikerketen emaitzak Interneten ipini ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak. Hain zuzen, www.aranzadi-zientziak.org webgunera jo behar duzue. Besteak beste, Intxortako borrokari eta Elgetaren hartzearen

gaineko informazioa, hilobietara egindako bisiten txostenak, ikerkuntza taldea... agertzen dira. Argazkiak eta mapak ere ipini dituzte.

ESKORIATZA

► **Udaletxeko jendeari harrera egiteko ordutegia** honakoa izango da uztailean: 10:00etatik 13:30era bitartean.

► **Bi udal lanposturako deialdia** egin dute: udaltzaina eta liburutegi laguntzailea. Baldintzak, frogak, gaiak eta bestelako informazioa www.eskoriaatza.net webgunean dituzue, edo Eskoriatzako udaletxeko bulegoetan.

OÑATI

► **1978.ean jaiotakoek** kinto ospakizuna izango dute irailaren 18an, zapatua. Parte hartzeko, 35 euro sartu behar dituzue Kutzako honako kontuan: 2101 0111 24 0124591132. Prezioaren barne daude bazkaria, Zotz jatetxean; kafea, xanpaina eta musika. Ospakizunaren egunean, Aker tabernan bilduko dira 12:00etan.

► **Igerilekuko eta solariumeko** udako ordutegia honakoa izango da: uztailean, astelehenean egubakoitzera,

09:00-21:00; zapatua, domeka eta jai egunetan, 10:00-20:00.

► **Oñatiko ondarea ezagutzeko** hainbat ibilbide gidatu antolatu ditu Turismo Bulegoak. Hain zuzen, arte eta historiaren inguruko bi ibilbide daude aukeran, bata uztaile eta abuztuan eta bestea abuztuan. Uztaile eta abuztukoak Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia erakusten ditu. Bestalde, natura ondarearen gaineko zortzi ibilbide daude abian. Datozen egunotan, hauek daude antolatuta: bihar, zapatua, *Uraren ibilbidea* delakoa (8 euro pertsonako); eta etzi, domeka, *Aizkorri mendikateko gailurrak* (8 euro pertsonako). Argibideetarako eta izena emateko, deitu 943 78 34 53 telefono zenbakira.

MUSIKA

ARAMAIO

► **Erdi Aroko musikan oinarritutako emanaldia** egingo du Boreas Camaras taldeak bihar, zapatua, kultura etxean, 20:00etan. Sarrera, doan.

ARRASATE

► **Nazioarteko folklore ikuskizuna** izango da hilaren 27an, martitzena, Amaia Udal Antzokian, 22:30ean. Sarrera doan izango da. Aurten, Polonia eta Maltako dantza taldeek ikuskizun bana eskainiko dute.

ELORRIO

► **Musikaire jaialdiaren barne**, honako kontzertuak izango dira: gaur, egubakoitza, Vox Vocis talde madrildarra, elizan, 22:30ean; bihar, zapatua, Nass Marrakech Marokoko taldea, elizpean, 22:30ean; etzi, domeka, Txinako folklore talde batek dantza emanaldia egingo du elizpean, 22:30ean; eta datorren egubakoitzean, hilak 30, Orchestra aus der Welt europar eta amerikar musikariek osatutako taldeak egingo du emanaldia Tola jauregian, 22:30ean.

OÑATI

► **Black Ship eta A Pico y Pala** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. Hirugarren talde batek ere joko du.
► **Banda Munizipala** talde oñatiarrek eta talde gonbidatu batek emanaldia

egingo dute egubakoitzean, hilak 30, San Anton plazan, Ona tabernaren aurrealdean, 22:30ean.

IKASTAROAK

ARETXABAETA

► **Hainbat promozio daude uztailean KZGunean:** doaneko ikastaroa egiten duenari autoarendako parasola oparitu dute; beste lagun bat ekartzen duenari, zira bat; eta Interneteko ikastaro bat egiten duten guztiak baserri turismo baten lau egonaldiaren zozketan sartuko dira. Uztaileko eskaintza da hau.

ESKORIATZA

► **NagusiWeb** nagusiek Internet erabiltzen ikasteko jardunaldiak izango dira KZGunean hilaren 26tik 30era bitartean, goizetan. Hamar orduko ikastaroa da, eta Internet zer den, nabigatzen eta erabilera nagusiak ikasiko dituzte. Gainera, izena eman eta lagun bat eramanen duten guztiak zira bat jasoko dute opari. Eskaintza hori orokorra da KZGunean, uztailean.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Kubatar jaiak** izango da uztailearen 26an, astelehena. Gaztetxean izango da, 19:00etan. Mojitoa, karaokea, linboa, lehiaketak... antolatu dituzte.
► **Ferrerias kaleko jaiak** ospatuko dituzte hilaren 26an, astelehena. Besteak beste, afaria antolatu dute, eta txartelak Tamayo dendan daude salgai, eta gaur, egubakoitza, duzue horretarako azken eguna. Honako egitaraua prestatu dute: 09:00etan, etxafuegoak; 12:00etan, txistularien kalejira; 17:00etan, umeendako jolasak eta txokolatada; 19:00etan, ikurrina jasoko dute, eta, ordu berean, meza izango da parrokiaren. Segidan, musika, poteoa, jokoak... izango dira. 21:00etan, afaria egingo dute, eta gero, musika emanaldia eta helduendako jolas eta txapelketak izango dira.
► **Maalako Errealeko jaietako azken ekitaldiak** ospatuko dituzte etzi, domeka. Hain zuzen, 12:00etan, meza izango dute San Frantziskon, eta jarraian, errealeko erretiratuek luntxa izango dute Plus Ultra tabernan.

BERGARA

► **Basalgotako jaiak** ospatuko dituzte egunotan. Gaur, egubakoitza, etxafuegoak eta makala jasotzea izango dira, 09:00etan; bihar, zapatua, bertso bazkaria, 14:30ean; etzi, domeka, meza, txirindulari gaztetxoan XXII. Basalgotako jokatuko da; 12:30ean, pilota partidua; 17:30ean, Basalgoko XII. Dantza Txapelketa, idiprobak, eta erromeria. Astelehenean,



► MUSIKA

AIRE ZABALEKO JAZZ KONTZERTUA IZANGO DA GAUR BERGARAN

Kebab taldearen musika emanaldia antolatu dute gaurko, egubakoitza, Bergarako Udako Gauak kultura eta aisialdi egitasmoaren barne; izan ere, gaurkoa izango da emanaldi sorta horretako azkena. Jazz estiloa lantzen du talde horrek, eta horiexekin gozatu ahal izango dugu uztaileko egubakoitz gau hori. Taldeak eskarmentu handia du: 2000. urtean sortu zuten hainbat estilotan aditu ziren musikari profesionalak, jazzarekiko eta inprobisazioarekiko zaletasunak uztartuta. Afrikako doinuak, Be-Bop estiloa, reggaea, hip-hop, drum'n'bassa edo latindarra gogora dakarzikiguten uneak eskainiko dizkigu Kebab laukoteak.

Non: Bergarako Espoioan. **Noiz:** gaur, uztaileak 23, egubakoitza. **Ordua:** 22:30. **Sarrera:** doan.

Zinema

hilak 26, 13:00etan meza izango dute; gero, luntxa eta umeendako jolasak.
► **Santixao jaiak** ospatuko dituzte bihar eta etzi Goimendi auzoan. Bihar, zapatua, 21:30ean, berakatz-zopa jana izango da auzoko plazan; 22:30ean, erromeria. Etzi, domeka, meza izango da 11:00etan, eta segidan, soka-dantza, herri kirolak, bertso emanaldia, eta musika. Arratsaldean, 17:30ean, dantza soltea izango da; gero, bertso emanaldia eta bola-joko txapelketa. Bukatzeko, erromeria izango da.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **Argazki lehiaketa** deitu du Lasai-Toki elkarteak, Bergaran jaio edo bizi direnendako. 2004.eko uda da gaia. Teknika librea da, eta argazkion gehieneko tamaina 30 x 40 zentimetro izan beharko da. Argazkion atzeko aldean, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa ipini beharko dira, eta bakoitzak lau lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. Mugaeguna da irailaren 13a. Lehenengo saria da herriko argazki denda baten gastatzeko 250 euro.

DEBAGOIENA

► **XV. Toribio Echevarria** sariketa deitu du Eibarko udalak. EAEn, enpresa arloko sari garrantzitsuenetarikoa dira. Enpresa asmoak eta sormena eta berrikuntza arloetan ematen dituzte sariok: guztira, 100.000 eurotik gora. Argibide gehiagorako, deitu Eibarko udaletxera (943 70 70 36).

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA

► **A-1 autobidearen eraginaren gaineko erakusketa** zabalik dago hil bukaera arte. Kultura etxean duzue bisitatzeko aukera, goizez zein arratsaldez.

GASTEIZ

► **Aitor Lajarin eskoriatzarrak** erakusketa du Artium museoan, beste sei euskal artista gazterekin batera. Lajarin lana publizitatean inspiratutakoa da. Irailaren 12ra bitartean duzue bisitatzeko aukera, honako orduetean: martitzenetik egubakoitzera: 11:00-20:00; eta zapatua, domeka eta jai egunetan, 10:30-20:00.

ARRASATE

MONTERRON

Atún y chocolate

Egubakoitza: 22:30.

Troya

Zapatua: 22:30.

ANTZUOLA

FRONTOI TXIKIA

Mystic river

Egubakoitza, hilak 23: 22:30.

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

El señor de los anillos: las dos torres

Egubakoitza, hilak 23: 22:30.

El señor de los anillos: el retorno del rey

Egubakoitza, hilak 30: 22:30.

ARETXABAETA

HERRIKO PLAZA

Buscando a Nemo

Egubakoitza, hilak 23: 22:30.

ESKORIATZA

HERRIKO PLAZA

Piratas del Caribe

Egubakoitza, hilak 23: 22:15.

Sucedió en Manhattan

Astelehena: 22:15.

Las chicas del calendario

Eguaztena: 22:15.

American Pie: menuda boda

Egubakoitza, hilak 30: 22:15.

EIBAR

UNZAGA

Isi / Disi

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

RIALTO

Spider-man 2

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

GURIDI

Troya

18:00, 22:00.

Isi / Disi

16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Shrek 2

16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

La vuelta al mundo en 80 días

17:30, 20:00, 22:30.

Spider-man 2

17:30, 20:00, 22:30.

Seres queridos

16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban

16:30, 19:15, 22:00.

MIKELDI ZINEMAK

Isi / Disi

16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban

17:00.

Secretary

17:15, 20:00, 22:30.

Shrek 2

16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

Troya

19:35, 22:35.

Kill Bill 1

17:15, 20:00, 22:30.

Kill Bill 2

17:30, 20:15, 22:45.

Spider-man 2

17:15, 20:00, 22:30.

La vuelta al mundo en 80 días

16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

Dirty dancing 2

17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

FLORIDA-GURIDI

La herencia

18:00, 20:15, 22:30.

Kill Bill 1

20:00.

Kill Bill 2

17:30, 20:00, 22:30.

El último beso

18:00, 20:15, 22:30.

Fahrenheit 9/11

17:30, 20:00, 22:30.

Incautos

18:00, 20:15, 22:30.

Iris

17:30, 22:30.

Lee mis labios

17:30, 20:00, 22:30.

ABACO-LAKUA ZINEMAK

La vuelta al mundo en 80 días

16:20, 19:10, 22:20, 01:00.

Spider-man 2

16:30, 19:20, 22:20, 01:00.

Shrek 2

16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 00:45.

Isi / Disi

16:10, 18:20, 20:30, 22:30, 00:45.

Kill Bill 2

16:45, 19:30, 22:15, 01:00.

Seres queridos

16:20, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban

16:10, 19:10, 22:10, 01:00.

Troya

16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

El día de mañana

16:45, 19:30, 22:20, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Kill Bill 1

16:30.

Kill Bill 2

12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

Dirty dancing 2

12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Isi / Disi

12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Troya

Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 23:45.

Domeka: 12:15, 19:00, 22:15.

La valiente (laburra)

Incautos

20:15, 22:35, 00:50.

Shin Chan, operación rescate

12:15, 16:35, 18:25.

Giro inesperado

20:45, 22:45, 00:45.

Spartan

12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

La vuelta al mundo en 80 días

12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.

Ladykillers

18:20, 20:25, 22:30, 00:40.

El día de mañana

12:15, 17:35, 20:05, 22:35, 00:55.

Scooby doo 2

12:15, 16:15.

Spider-man 2

Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 17:15, 18:45, 20:00, 21:30, 22:45, 00:15.

Harry Potter y el...

12:15, 15:35, 18:35, 21:35, 00:35.

Pinocho 3000

12:15, 16:45, 18:45.

Shrek 2

12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, bakarrik domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

Shrek 2

12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna.

Shrek 2

12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna.

Shrek 2

12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

Dirty dancing 2

12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Troya

Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 23:45.

Domeka: 12:15, 19:00, 22:15.

La valiente (laburra)

Incautos

20:15, 22:35, 00:50.

Pinocho 3000

12:20, 16:05, 18:00.

ÁBACO BOULEVARD

Harry Potter y el prisionero de Azkaban

12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Dirty dancing 2

12:20, 16:15, 18:10, 20:10, 22:15, 00:30.

Spider-man 2

12:00, 12:30, 16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30, 00:45, 01:00.

Pinocho 3000

12:20, 16:05, 18:00.

Mystic river: ●●●●● | Buscando a Nemo: ●●●●● | Shrek 2: ●●● | Kill Bill I: ●●● | Ladykillers: ●●● | Troya: ●●● | El retorno del rey ●●● | Spartan: ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

SPIDERMAN 2

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: Sam Raimi.

AKTOREAK: Tobey Maguire, Kirsten Dunst.

U da garaian izaten dira Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako ekoizpen handien estreinaldiak. Horiek, publizitatean milioi piloa gastatuz eta komunikabideetan tarte ugari lortuz, filmak inork galdu behar ez duen gertakizun bihurtu nahi dute: lehenengo aste bukaeran diru gehien aterratzen duen filma izan behar dute, bai-

ta irudi ikusgarrienak eta aurrekontu handiena erabiltzen duten ekoizpenak ere. Denak handiegia izan behar du, eta handikeria horrek, azkenean, kalte besterik ez die egiten filmei. Nire ustez, horixe da *Spiderman 2*-ri gertatzen zaiona: ikusgarritasun gehiegi, iraupen gehiegi, eta emozio gutxi.

Spiderman 2-ren iraupena bi ordu eta hamar minutukoa da, eta egia esateko, gutxienez ordu erdi soberan du. Bi edo hiru orduko iraupena duten filmen kontra ez daukat ezer. Kontatzen zaigun istorioak merezi duenean, beharrezkoa den denbora pasa daiteke zinemari, baina gauza gutxi kontatzeko denbora gehiegi erabiltzen denean, ekintzako eszenak asko luzatzen direnean, eszena bera aldaketa gutxiekin behin eta berriz erakusten denean (momentu batean *Parker*-en izeba gaiz-



kilearen menpe, eraikin altu baten zintzilikatuta ikusten dugu; gero, *Parker*-ek maite duen neska egoera berean ikusten dugu...). Dekoratu zerbait alda daiteke, baina azkenean errepikapenaren sentsazioa sortzen da. Halako eszena mota ugari eta luzeegiak daude, eta

horrela, istorioaren eta pertsonaien arteko harremanak sakabanatu eta galdu egiten dira, eta filmak intentsitatea, interresa eta emozioa galtzen ditu. Pertsonaiak nahiko azalekoak dira, batez ere gaizkileak: Alfred Molinak egiten duen pertsonaiak ez du karismarik eta *Parker*-en lagun den eta *Spiderman*-en kontra dabilen gazteak ez du garrantzirik hartzen filmaren bukaera arte. Denbora gehiegi galtzen da ikusgarritasunean, eta azkeneko hoge minutuetan kontaktu ez den guztia kontatu nahi da.

Spiderman 2 ez da aspergarria, Raimik badaki irudi ikusgarriak sortzen, filmak momentu eta irudi onak baditu, baina nahiko desorekatua dago, ez du zirrararik sortzen, ez du arrisku sentsaziorik ematen, eta hotz samar uzten gaitu.

ANTONIO ZABALA

ORAIN, ZINEMA IKUSTEKO AUKERA PREZIO MURRIZTUAN
ASTEKO EGUN GUZTIETAN

Moztu txartel hau, eta sarrerak prezio murriztua izango du, zuretzat eta zure lagunarentzat

04/08/31ra arte baliagarria



ABACO-N, ZURE EDALONTZIAK SARIA DAUKA, SEGURU!

www.cinesabaco.com

BIKOTEKIDEA ZAIN DUZU

IMMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Zubiaurre 50 m². Berrituta.
• Masterreka 75 m². Berritzeko.
• Zabalotegi 60 m². Eguzkitsua.
• Azkarruntz 80m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.
• Behoko Auzoa 60 m². Ondo. Erdialdean 86 m². Garajea.
PABILIOIA SALGAI
• Osintxu 660 m²
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osintxu, Angiozarren, Sorluzen eta San Juanen.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA

Telefonor Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
• Ozaeta 70 m². Berrituta.
• Martoko 60 m². Berrituta.
• Zabalotegi 60 m². Argitsua.
• Zubiaurre 51 m². Eguzkitsua. Garajea.
• Erdialdea 78 m². Berrituta.
ANTZUOLA:
• 11 etxebizitza berri.
• Kalebarren 84 m². Berritzeko.
• Behoko auzoa 60 m². Berrituta.
SORALUZE:
• 80 m². Berrituta. Garajea eta bokoa.
BASERRIAK
• Angiozar 600 m² eta lursaila.
• Elosua 405 m² eta lursaila.
Bergaran salgai eta errentan:
Lokalak, pabilioiak eta garajeak

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU
Arrasate. Berrituta eta jantzita. 162.200 euro. 686 89 98 84.

Arrasate. Gorostiza auzoan, lege lasai eta eguzkitsuan 110 m²ko duplexa salgai. Garajearekin. 250.000 euro. 636 94 81 31.

Arrasate. Iturriotz kalean etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, jantokia eta komuna. Etxeak 93 m² ditu eta terrazak 16 m². 943 13 04 71 edo 629 70 83 84.

Arrasate. Loramendi kalean etxebizitza salgai, Eguzki dorrean. 943 79 52 99.

Arrasateko Erguin auzoan. Berrituta eta egoera onean dago. 647 29 93 44.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Hiru logela. Eguzkitsua. 646 03 24 93.

Bergara. Ganbara saldu edo alokatzen dut. 652 73 19 00.

Etxebizitza salgai, alde zaharrea. 600 41 22 75 edo 679 95 26 55.

San Vicente de la Sonsera. Etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldia, egongela eta komuna. 60 m². 943 76 60 32 edo 617 09 02 79.

Torreveja. Apartamentua errentan ematen dut, hondartzaren ondo-ondoan. Hiru logela ditu. Abuztua eta iraila. 943 79 52 94.

103. ERRENTAN EMAN

Alcossebre (Castello). Apartamentu berria errentan ematen dut, 4-7 lagunendako. Igerilekua, aparkalekua, alde guztietatik kanpora begira. Jantzia. Hondartzatik 350 metrora. 943 79 28 23 edo 662 05 40 86.

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan emango nuke. 656 72 14 82.

Aretxabaletan etxebizitza errentan. Hiru logela ditu. 676 32 95 73.

Arrasate. Bi logela dituen apartamentua errentan. Profesionalek oso

gertu. Guztiz berritua. 626 17 51 08.

Arrasate. Erguin auzoan ikasleendako etxebizitza errentan: sukaldia, komuna eta lau logela. 943 79 40 44.

Arrasate. Etxebizitza errentan lau ikasleendako. Hiru logela eta egongela. Eskola Politeknikoaren ondoan. 943 79 77 85.

Arrasate. Ikasleendako etxebizitza alokatzeko daukat, Unibertsitate hiru minututa. San Andresen. Oso merkea. Gauze deitu. 943 79 81 05.

Benidorm. Apartamentua errentan emango nuke. 945 29 33 80.

Benidorm. Apartamentua errentan ematen dut, Levanteko hondartzan, abuztuko bigarren hamabostaldian. Bi logela ditu. Igerilekua eta

garajea ditu. Telefonoa: 666 67 06 94.

Benidorm. Etxebizitza emango nuke errentan. Levanteko hondartzan, lehen ilaran. Igerilekua eta parking-a ditu. 943 74 20 31 edo 943 74 38 27.

Benidormen estudioa errentan abuztuan, El Rincón de Lois gunean, itsasotik gertu. Hamabostaldi bat, 600 euro. 626 61 77 12.

Cambriks. Etxebizitza ematen da errentan uda parterako. Berri-berria. Oso leku onean. 619 37 51 18 edo 943 79 63 49.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso gertu. Deitu gauze. 670 37 71 03 edo 945 06 00 24.

Chiclana (Cadiz). Lau mendiko bungalow errentan ematen ditut, eguneko. Hondartzatik 3 km-ra. Barbakoa, garajea birendako eta biestra-rendako lekua. 60 euro bungalow eta gaueko. Amaia. 620 26 80 24.

Donostia. Abuztuaren 8tik 15era etxebizitza ematen da errentan (Aste Nagusia). Hondartzatik bi minututa. Hiru logela. Bost ohe. 943 88 08 89 edo 660 79 44 63.

Donostia. Amaran etxebizitza errentan uztailean, abuztuan eta irailean. Hiru logela. 615 77 00 01.

Donostia. Antigua auzoan etxebizitza errentan ikasleendako. 687 78 50 45.

Donostia. Ategorrieta auzoan apartamentua errentan udan. Merke. Deitu arratsalde. 943 79 04 70.

Gasteizen Adriano VI kalean. Lau logela, bi bainugela, egongela, ganbara. 800 euro. 943 79 31 77.

Haro. Abuztuan eta irailean apartamentua ematen da errentan. 619 80 77 12 edo 659 72 35 87.

La Pineda (Salou). Apartamentua errentan, abuztuan. 606 76 11 37.

Oñati. Etxebizitza errentan ikasleendako edo irakasleendako. Olakuan. Bi logela, igogailua, kanpora begira, ondo dago. Unibertsitate oso gertu. 943 78 16 33.

Peñiscolan lau-sei lagunendako etxebizitza. Irailean; hondartzatik 100 metrora; guztiz hornituta; igerilekua eta aparkalekua ditu. 610 87 83 57 edo 943 77 19 09.

San Carles de la Rapitan (Tarragona). Etxebizitza errentan. 100 m². Hiru logela. Uztaila, abuztua edo iraila. Telefonoa: 943 79 29 23 edo 669 92 53 44.

Sancti Petri-Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan abuztuan eta irailean. Urbanizazio berria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Santander. Hiriburuan etxea errentan. Uztailako bigarren hamabostaldian eta abuztuan. 800 euro, hamabost egun. 943 53 27 09.

Santanderren etxebizitza alokatzeko daukat. 600 euro,

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK BERGARA: 101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEA OSATU 106. BESTELAKOAK	3. LOKALAK 301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	5. IRAKASKUNTZA 501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	7. ANIMALIAK 701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	9. HARREMANAK 901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK
2. GARAJEAK 201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	4. LANA 401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK	6. MOTORRA 601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 604. BESTELAKOAK	8. DENETARIK 801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKORIATZA

ILE APAINZAILA BEHAR DA. BEREHALA HASTEKO. 943 71 30 31

LORAMENDI KIROLAK

JOSTUNA BEHAR DUGU. INTERESATUOK, ZATOZTE SAN ANDRES AUZOKO DENDARA.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke, irailetik aurrera. 620 34 51 53.

Arrasate. Logela bat hartuko nuke errentan. Arrasate erdialdean. Langilea naiz. 650 59 93 91.

Arrasaten etxebizitza alokatu gura dut. 615 00 32 31.

Bergara. Bikote batek etxebizitza alokatuko luke. Deitu 15:00etatik aurrera. 618 18 54 04.

Bergara. Emakumezko batek etxea hartuko luke errentan. Bergaran edo Arrasaten. 609 46 07 07.

Donostia. Logela bat errentan hartuko nuke urritik aurrera. Langile etxebizitza batean bada, hobe. 943 77 17 86.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Gela bat ematen duen errentan, erdialdean. Sukaldia erabiltzeko eskubidea. Jende arduratsua eskatzen da. 686 74 01 95.

Arrasate. Hiru lagun behar

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Zigorrola auzoan garaje itxia salduko nuke. Estrella taberna ondoan. 606 66 18 69.

Bergara. Ozaetan garaje itxia salgai. 646 03 24 93.

Bergara. Ozaetan garaje itxia salgai. 7.813,16 euro. 618 02 02 58.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Bergarako Mekolalde auzoan, 82 metro koadroko loka-

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BURUETARAKO. 647 05 42 75 652 70 82 46

BERGARA

ESTETIZISTA BATENDAKO AUKERA EZIN HOBEA. 943 76 49 51

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Abuztuan elkarte bat garbitzeko pertsona bat behar da. 943 79 62 63.

Arrasate. Emakume bat behar da irailetik aurrera etxeko-lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943 77 16 19 edo 676 05 53 40.

402. ESKAERAK

Antzuolan, arratsalde biz-pahiru ordu lan egiteko gertu dago neska bat; Antzuolan edo Bergaran. 629 30 43 38.

Arrasate. Emakume eskalduna gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 659 82 75 18.

Arrasate. Esperientziadun neska umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. 618 03 65 02.

Bergara. Mutil gaztea zerbitzari modura lan egiteko gertu. 686 62 22 55.

Bergara. Neska gaztea lane-rako prest uztailean. 649 36 13 47.

Debagoiena. Neska gaztea eskaintzen da edozein lan egiteko (garbiketa, banaketak, ostalaritza...). Berehala lanean hasteko moduan. 635 70 31 01.

Debagoiena. Neska gertu dago garbiketa lanak egiteko, astean bizpahiru egunean, goizez edo arratsaldez. 696 53 34 15.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Italiariko eskolak jasoko nitzuke uztailean eta abuztuan. Oinarriko mailatik hasita. 943 76 70 46.

Bergara. Enpresa ikasketak egiten diharduen ikasle batek kontabilitate eskolak jasoko nitzuke udan. 626 00 74 08.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen ZX autoa salgai. Egoera onean. 167 ZP. 1.015 kilometro. Zuria. Matrikula SS-AV. Josu. 659 71 57 22.

Citroen ZX Break Avantage TD autoa salgai. Oso ego-

BERGARA

SUKALDARIA BEHAR DA ABUZTURAKO. 677 45 23 33

BERGARA

SUKALDARIA BEHAR DA JATETKEAN JARDUTEKO. IRAILEAN HASTEKO. ORDUTEGI ONA. SOLDATA. NEGOZIATZEKO. 665 70 17 74

BERGARA

SUKALDARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETARAKO. 626 75 91 04

BERGARA

NESKA BEHAR DA DENDA BATEAN LAN EGITEKO, ABUZTUAN, GOIZETAN. 943 76 13 23

DEGAGOIENA

KOMERTZIALAK BEHAR DITUGU

Bokazioarekin eta presentzia onarekin.

Baldintzak adosteko. Aukera dago enpresako bazkide izateko. 943 77 06 09

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Bull terrier arrazako txakurkumeak salduko nitzuke. 943 78 27 15.

Setter eme bi salduko nitzuke. Apirilaren 18an jaioak. Aita eta ama oso onak oilagorretan. Deitu 18:00etatik aurrera. 652 71 46 54.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Animaliak edukitzeko txabola salgai. Lursail txikiarekin eta Bergarako erdialdean kokatua. 655 74 80 07 edo 943 76 99 76.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bateria salgai. Mapex markako bateria saltzen da xafila, euskari eta aulkirekin. Gutxi erabilia dago. 900 euro. Aitor. 646 52 64 78.

Bikientzako Prenatal markako haur-kotxea, autoarentzako aukila eta sehaska salgai. Edredoi eta zakua opari. 635 75 42 90.

Bikiendako sehaska, Prenatal markako ume-kotxea eta Maxi-Cosia salgai. Koltxoiak, edredoiak eta zakua oparitutako ditugu. Telefonoa: 635 75 42 90.

802. EROSI

Granpoiak eta pioletak erosiko nitzuke. Deitu 20:00etatik aurrera. Arantza. 943 03 78 56.

Orturako makina erosiko nuke. Berdin da egoera. 656 75 76 98.

Txanponak eta bankuko billeteak erosiko nitzuke, mota guztietakoak. Bila joateko gertu nago. Deitu 17:00etatik aurrera. 945 44 50 44.

806. GALDU

Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen zapatu iluntzean. O. Marine markakoak. Telefonoa: 943 76 56 34 edo 617 51 27 71.

Futboleko kopa galdu dugu. Bergarako Ipintza txapelketan, neska gazteen mailan, laugarren sailkatuari zegokion kopa. Eskertuko genuke aurkitzen duenak deitzea. 943 76 28 44.

Oñati. Perla txuridun esku-muturrekoak galdu nuen Kalebarria eta plaza artean. Balio sentimental handikoa. Eskertuko da. 943 78 10 26.

BERGARA

SUKALDARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETARAKO. 677 45 23 33

BERGARA

NESKA BEHAR DA DENDA BATEAN LAN EGITEKO, ABUZTUAN, GOIZETAN. 943 76 13 23

DEGAGOIENA

KOMERTZIALAK BEHAR DITUGU

Bokazioarekin eta presentzia onarekin.

Baldintzak adosteko. Aukera dago enpresako bazkide izateko. 943 77 06 09

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Bull terrier arrazako txakurkumeak salduko nitzuke. 943 78 27 15.

Setter eme bi salduko nitzuke. Apirilaren 18an jaioak. Aita eta ama oso onak oilagorretan. Deitu 18:00etatik aurrera. 652 71 46 54.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Animaliak edukitzeko txabola salgai. Lursail txikiarekin eta Bergarako erdialdean kokatua. 655 74 80 07 edo 943 76 99 76.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bateria salgai. Mapex markako bateria saltzen da xafila, euskari eta aulkirekin. Gutxi erabilia dago. 900 euro. Aitor. 646 52 64 78.

Bikientzako Prenatal markako haur-kotxea, autoarentzako aukila eta sehaska salgai. Edredoi eta zakua opari. 635 75 42 90.

Bikiendako sehaska, Prenatal markako ume-kotxea eta Maxi-Cosia salgai. Koltxoiak, edredoiak eta zakua oparitutako ditugu. Telefonoa: 635 75 42 90.

802. EROSI

Granpoiak eta pioletak erosiko nitzuke. Deitu 20:00etatik aurrera. Arantza. 943 03 78 56.

Orturako makina erosiko nuke. Berdin da egoera. 656 75 76 98.

Txanponak eta bankuko billeteak erosiko nitzuke, mota guztietakoak. Bila joateko gertu nago. Deitu 17:00etatik aurrera. 945 44 50 44.

806. GALDU

Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen zapatu iluntzean. O. Marine markakoak. Telefonoa: 943 76 56 34 edo 617 51 27 71.

Futboleko kopa galdu dugu. Bergarako Ipintza txapelketan, neska gazteen mailan, laugarren sailkatuari zegokion kopa. Eskertuko genuke aurkitzen duenak deitzea. 943 76 28 44.

Oñati. Perla txuridun esku-muturrekoak galdu nuen Kalebarria eta plaza artean. Balio sentimental handikoa. Eskertuko da. 943 78 10 26.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI) 649 84 67 09 (BERGARA)

era onean. 1995ekoa. 3.000 euro. 943 77 10 51.

Galoper monobolumena salgai. 2000koa. Telefonoa: 943 79 47 43.

Honda Transalp motorra salgai. 2000 euro. Telefonoa: 659 87 47 60.

Honda VFR motoa salgai. 1994koa. 50.000 kilometro ditu eta oso egoera onean dago. 620 73 08 01.

Jeep Cherokee. 2.5 TDi, full equipu. 1998. urtekoa. 659 04 20 99.

Karro-denda salgai. 4-5 lagunendako. 943 76 40 54.

Opel Corsa 1,7 autoa salgai. Diesela. Aire girotuarekin. 2000koa da. 655 70 73 77.

Rover 220 Coupé autoa salgai. la hamar urte ditu. Prezioa adosteko. 635 72 37 63.

Seat Arosa 1.0 salgai. BLS. 5 urte. 45.000 km. 4.000 euro. 946 23 17 56.

Suzuki Gs 500 E. 34 zaldira muga daiteke. 1994koa. Egoera onean. Estrak: kaxa eta pantaila. 667 66 12 40 edo 943 76 38 26.

Volkswagen California Coach furgoneta salgai. Aire girotua, eguzki-oihala eta berogailu gehigarria ditu. Auto-parrillarekin; baita bizikletak eramateko ere. 629 42 21 90.

Yamaha Drag Star 650 motoa salgai. 1997koa. 15.000 km. Beltza. Ondo zaindua. 667 66 12 40.

Sofa-oheta, 1,5 m zabalekoa (400 euro) eta besaulki mugikorra salgai. Berri-berriak. 665 74 91 50.

Soinua edo akordeoi handia, tekladuna, salgai. 943 76 16 79.

Ume-kotxea. Prenatal markako da eta erraz batu daiteke. 30 euro. 943 79 41 31.

Umeendako bizikleta salgai, BH markakoa. 693 11 97 99.

802. EROSI

Granpoiak eta pioletak erosiko nitzuke. Deitu 20:00etatik aurrera. Arantza. 943 03 78 56.

Orturako makina erosiko nuke. Berdin da egoera. 656 75 76 98.

Txanponak eta bankuko billeteak erosiko nitzuke, mota guztietakoak. Bila joateko gertu nago. Deitu 17:00etatik aurrera. 945 44 50 44.

806. GALDU

Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen zapatu iluntzean. O. Marine markakoak. Telefonoa: 943 76 56 34 edo 617 51 27 71.

AIPAGARRI

Aitor Lajarin

ESKORIATZA

Gasteizko Artium museoa daude ikusgai Aitor Lajarin 27 urteko eskoriatzarraren artelanak. Gela bateko bi horma eta zoruaren zati handi bat hartzen dute bere lanek. Margolan, eskultura eta bideoarekin ere jolastu du Aitorrek. Dagoeneko ikusgai daude bere lanak; irailaren 12ra arte.



Maider Guridi

OÑATI


Tesina aurkeztuko du, euskaraz, Maider Guridik Oñatiko Lege Soziologiako Institutuan. *El euskera en la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma Vasca* da tesinaren izenburua. Astelehenean egingo du aurkezpena, 12:00etan, eta defentsa irekia da.



Jon Suinaga

BERGARA


Jony eta lagunak izenburua duen komiki liburua plazaratu berri du Jon Suinaga bergararrak. Umorea eta kritika uztartu ditu egileak lan horretan. Guztira, 1.000 ale kaleratu dituzte eta dagoeneko salgai daude Hego Euskal Herriko liburu dendetan. Suinagak 37 urte ditu eta ingeniaria da.



Angel Murillo eta Antonia Martin arrasatearrak duela 25 urte ezkondu ziren, 1979ko uztailaren 21ean, Arrasateko Mesedeetako Amaren elizan. Bihar, zapateria, bazkaria egingo dute familiakoekin zilarrezko ezteiak ospatzeko. Zorionak bioi, Ana, Anibal eta Almudenaren partetik!



Maria del Carmen Melgar eta Santi Isasmendi aretxabaletarrak 1979ko uztailaren 25ean ezkondu ziren, eta familiarekin batera ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak. Zorionak, familiaren partetik, eta bereziki Edurneren partetik!



Shanti Galfarsoro legazpiarra eta **Monika Etxeandia** aretxabaletarra bihar, uztailaren 24n, ezkonduko dira Zumarragako Antiguako baselizan. Eta ezkon bidaian, Thailandiara joango dira. Zorionak, bikote, etxeko eta lagun guztien partetik!



Juli Marmolejo eta Joaquin Garzon eskoriatzarrak bihar, zapateria, ezkonduko dira Eskoriatzako San Pedro elizan. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute. Zorionak eta urte askotarako, familiako, gurasoen eta anaien partetik!



Ainhoa Zubikarai eta Aitor Peñagarikano datorren zapatuan, uztailaren 31n, ezkonduko dira Bedoñako elizan. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik, eta, bereziki, Xabaten partetik!



Izaskun Agirregabiria eskoriatzarra eta **Iker Urkia** aretxabaletarra bihar, uztailaren 24an, ezkonduko dira Aretxabaletako Goroeta auzoko Santiago parrokiari. Ezkon bidaian Mexikora joango dira. Zorionak, etxeko guztien partetik!

ESKER ONA

Pedro Jose Gallastegi Gabilondo

Arrasaten hil zen 2004ko uztailaren 14an, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2004ko uztailaren 23an.

ESKER ONA

Juan Jose Uriarte Muruaga
"Bermi"

Iruñean hil zen 2004ko uztailaren 19an, 57 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2004ko uztailaren 23an.



Ander eta **Maite** zapatuan, uztailaren 24an, ezkonduko dira Arantzazuko santutegian. Bazkaria hospederian egingo dute, eta ezkon bidaian Argentinara joango dira. Zorionak bioi, familia osoaren partetik!

URTEURRENA

Migel Etxegoien Ziordia

Lehen urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 24an, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokiari.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Loiti Laskurian
Felisa Bengoaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 25ean, 10:30etan, Uberako San Paulo elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Anakleto Agirre Badiola

Lehen urteurreneko meza abuztuaren 8an, domeka, 13:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.





Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	*Deitura	▼	Bat-batean	▼	Kasik
	Lirain		Legez, bezala		
	▶		▼		▼
	Oro, guzti	▶			
	Landare mota				
*Izena	▼	Makila gakoak	▶		
Atsegin, adeitsu		Zurez estali			
▶		▼		Bizkaiko herria	▶
				Joera	
Txantxetan	▶			▼	
Distira					Erietxe
▶				Bigarren bokala	▶
				Agurtzeko	▼
Nihaur	▶			Infin., hartu	▶
Ahots				Zurrutada	▼
▶				Biltegi	▶
				Ile (Bizkaieraz)	▼
Larrua	... egin, trufatu	▶	▼		
	Zilbor				
▶	▼			2. musika nota	▶
				Indioaren ikurra	
Zarauzko lurmuturra	▶			▼	Gramoa
Kaiku					Gauss
▶				Behar den bezala	▶
				▼	

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

ARROZAKIN KARGATUTAKO KARTUTXOAK

An ziarduen kazan Petit Patxoa eta beste lagun bi, danak elkarrekin. Usuenpasia ikusi zebenian, asi ziran tiroka irurak. Eta jausi be usuak lurrera...

Lenengo usua jaustera-koan, diño batek:

- Neria!
- Jausi da bigarrena, eta bestiak diar eitxen dau:
- Neria!
- Bardin irugarren batek
- Neria!

Orduan Petit Patxoiak:

- Baiña. Mutillak, zuek zer uste dozue, nere kartutxoak arrozakin kargautu daozela ala?

BANKUA JOTIA, KIEBRIA!

Gaztetxo batzuk pelotan ikasten ziarduen Astelena pelotalekuan maisu batekin. Ertz baten, an zeguan bankua, pelotarixak bihar izaten daben esparadrapu, eskuñapu, pelota ta abar eukitzeko.

Baziarduan maixuak "pitxaria" zelan egin bihar dan erakusten. Eta, ormabixak, eta atzera baztertzea...

Onetan, gaztetxo batek esatetsa:

- Zu, maixu, txapia jotia zer da?
- Txapia jotia faltia dok.
- Ta bankua jotia?
- Bankua jotia? Ori kiebria dok, txotxo!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Non jarri behar dituzte Debagoieneko araztegi edo depuradorak?

Debagoieneko herrietako ur zikinak garbitzeko instalazioak aurre-ra doaz apurka-apurka. Urte gutxi barru Deba ibaia garbi eta txukun izango ei dugu. Horretarako, ur zikinok bildu eta bi araztegi edo depuradora handitan garbituko dira, errekarata bota aurretik. Badakizu non egingo diren bi depuradorak?

- Zubillagan (Oñati) eta Mekolalden (Bergara).
- Zubillagan (Oñati) eta Osintxuko irteeran (Bergara-Soraluze).
- Epelen (Bergara-Arrasate) eta Mekolalden (Bergara).
- San Andresen (Arrasate) eta Osintxuko irteeran (Bergara-Soraluze).

Erantzuna: : Epelen (Bergara-Arrasate) eta Mekolalden (Bergara).

SOLUZIOAK



I	G	N	O	●	U	L	A
G	●	I	G	E	T	I	●
E	R	●	A	V	Z	V	A
T	U	R	R	U	T	●	●
I	G	E	T	●	Z	O	B
R	A	H	●	U	E	N	●
E	●	I	D	A	I	●	D
●	Z	A	L	R	U	B	●
A	E	●	L	A	Z	V	M
I	K	I	Z	K	I	●	S
A	N	E	●	D	●	●	A
I	A	L	A	G	●	●	●
●	Z	●	●	●	●	●	●

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Oporrak atzeratu egin beharko dituzu, familiarteko arazo batzuk direla-eta. Bestalde, autoaren karreroiak matxuraren bat izango du, eta tailerrera eramane beharko duzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Familiakoekin eta bikotekidearekin oso une atseginak bizi izango dituzu; eta bikotekidearekin ez baduzu, lasai, laster neska/mutil atsegin bat ezagutuko duzu-eta.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Araozko ikuspuntu positiboz ikusteko gaitasuna duzunez eta oso hotz jokatzen duzunez, edozein ustekabekori aurre egiteko gauza izango zara. Bestalde, ez da une egokia jendearekin hartu-emanak izateko; hortaz, utzi beste baterako.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Zehaztu dituzun helburuak lortzeko edozer egingo duzu, jendearen sentimenduak kontuan hartu barik; hori dela eta, bati baino gehiagori min egingo diozu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Irudimentsua eta ameslaria izateak hainbat buruhauste ekar diezazkizuke; hortaz, ahalegin zaitzez errealistago izaten. Bestalde, zaindu zer jaten duzun, gehiegikeriak ez dira-eta batera onak.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Bidaia bat egingo duzu, eta etorkizunean zure bizitzan oso garrantzitsu izango den jendea ezagutuko duzu. Bestalde, bikotekidearekin ez baduzu, lasai, laster neska/mutil atsegin bat ezagutuko duzu-eta.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Oso sentibera egongo zara, eta edozergatik haserretuko zara; izan ere, arazo txikiena ere handi bihurtuko duzu. Horren guztiorren ondorioz, eztabaida inozoak izango dituzu lagunekin eta familiakoekin. Neurtu zer esaten duzun.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Inguruko emakumei esker, horrenbeste espero zuzen proiektua aurrera ateratu izango duzu. Bestalde, oso aste positiboa amodio kontuei dagokienez.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Oraingo astean aspertu egingo zara eta oso bakarti sentituko zara. Horrez gain, lanean guztiz blokeatuta egongo zara. Edozelan ere, ez estutu, eta ahalegin zaitzez beste alternatiba batzuk topatzen.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Oso hotz jokatuko duzu ingurukoekin, eta bikotekidea haserretu egingo da zure jokaera hori dela eta. Bestalde, oso aste aproposa da kontratuak sinatzeko eta negoziazioak egiteko.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Zure ingurune gertatuko den zerbaitek nahiko argi zenituen gauza batzuk berriro planteatzea eragingo du. Bestalde, dirua xahutu eta xahutu ibiliko zara, eta arazoak izango dituzu hil bukaerara ailegatzeko.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Jendearekin oso hartu-eman ona daukazu, eta edozer lortzeko gauza izango zara. Bestalde, Sex appeal handia izango duzu, eta neska/mutil asko gerturatuko dira zuzana.



Uztailaren 20a: 010 zozketa

Harpidedunen
txokoa

Zorionak, Lurdes!

Arrasaten bizi den Lurdes Larrañaga bergararrari tokatu zaio *Asteleheneko Goienkaria*-k zozkatutako Kariberako bidaiaria. Pozik hartu du berria hasieratik *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun den honek. Jose Ramon Ariño senarrarekin joango da.

“Lankideek eman zidaten berria: sekulako ustekabe atsegina izan da”

Zela jakin zenuen tokatu zitzaizula?

Lankideek eman zidaten berria. Hasieran ez nien sinistu, baina Goienara deitu nuen eta han ziurtatu zidaten.

Zozketaren zain zeunden?

Zozketa egunaren bezperan komentatu genuen senarrak eta biok zozketarena, baina gero ahaztuta geneukan. Ustekabe atsegina izan da. Oso pozik gaude.

Zeinek in joango zara?

Senarra eta biok joango gara. Semeak haserre ditugu, eurak ere gus-tura joango zirelako, baina...

Egonak zarete Karibbean?

Bai, Mexikon eta Guatemalan, baina Dominikar Errepublikan, oraindik ez.

Zer ikusi nahi duzue han?

Toki askotan ibiliak gara bidaiatzen eta gustatzen zaigu motxila bizkarrean hartuta tokiak ezagutzea. Han ere hori egin nahi dugu, ez dugu egun guztia eguzkia hartzen etzanda egon nahi.

Noiztik zara *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun?

Hasieratik. Iruditu zitzaigun egitas-mo interesgarria zela eta izena eman genuen. Oso ondo dago. Beharrezkoa dela uste dut.



Iberiko Puri Justel eta irabazlea, Lurdes Larrañaga.



Beste sari batzuk ere zozketatu ziren. Zure izena azpiko zerrendan badago,

ZORIONAK!

Umeendako liburu sorta:

- Maximo Letona (Arrasate)

Aquariumerako bi sarrera:

- Joseba Heriz (Arrasate)
- Josefina Abarrategi (Arrasate)
- Lorea Isasmendi (Aretxabaleta)
- Karmelo Kortabarria (Arrasate)
- Francisco Ansoategi (Arrasate)
- Isabel Sanchez (Bergara)

Yelmo Cineplex-era sarrerak:

- Agurtzane Azkarate (Bergara)
- Asier Ingidua (Aretxabaleta)
- Josu Toledo (Antzuola)
- Jose Luis Ezkurra (Arrasate)

IRAILAREN 6KO SARIAK

Baldintzak

- PHILIPS DVD irakurgailua

- AQUARIUMerako lau sarrera (saridun bakoitzarendako bi)

- YELMO CINEPLEX-erako lau sarrera (saridun bakoitzarendako bi)

- SINONIMO ETA ANTONIMOEN HIZTEGIA. Jon Urrujulegik egina (Elhuyar argitaletxea) 21.416 sarrera, 8.297 antonimo, 59.800 sinonimo eta 26.900 adiera dituen euskarazko hiztegia.



- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51


Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **20 €**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Nora doaz udako oporretan Goiena Telebistako aurkezleak?


GOITBk abuztuan oporrak hartzen dituela-eta, aurkezleei galdetu diegu ea nora doazen oporretan



GORKA ETXABE

“Mendira joango gara, jaietan ibiliko gara eta baita Donostian ere”


“Opor merkeak aukeratu ditut: mendira joango gara, Pirinioetara, gero Aretxabaletako jaietan herrian ibiliko gara eta bigarren hamabostaldian egun batzuk egingo ditugu Donostian”. Hala kontatu digu telebistako erredaktoreburuak. Esan digu azken hiru urteotan Europan bidaiatu dutela, batez ere, ekialdea, eta iaz, aldatzearen, Turkian ere egon zirela. “Turismoa egitea gustatzen zait, baina eguraldi onarekin. Jendea eta lekuak ikustea...”.



DEIANE ARRIETA

“Mendiari alergia diot, niri hondartza gustatzen zait”

Orain arte, behintzat, ez dela asko irteteko pertsona izan kontatu digu telebistako albistegietako aurkezleak. Edozelan ere, aurten Conilera joateko asmoa duela esan digu, iaz moduan. Izan ere, hondartza du gustuko Deianek. “Mendiari alergia diot; niri hondartza gustatzen zait, duda barik”. Han zer egiteko asmoa duen galdetzean, zera esan digu: “Denarik egin gura dut: deskantsatu, parrandan ibili eta deskonektatu”.



JULEN IRIONDO

“Bretainiara goaz, ez Mediterraneora azken urteotan bezala”

Harmailatik saioko aurkezle oñatiarra Bretainiara joango da aurten neskalagunarekin. “Oso polita dela sarri entzun dut eta han egonak diren lankideek-eta gomendatu didate joatea”. Badaezpada kanpa-denda eroango dute, baina aterpetxeetan egingo dute lo. Hegoaldetik hasi eta iparreraino, aldenik alden zeharkatuko dute Bretainia. “Beste urte batzuetan Mediterraneoan ibili izan gara; aurten, ostera, plana aldatu dugu”, diosku.



AMAGOIA LASAGABASTER

“Tenerifera noa eguzkia hartzera, siesta egitera...”


“Tenerifera noa, *buelta eta buelta*, eguzkia hartzeko gogo handia daukat-eta. Iaz Europan barrena ibili ginen eta sekulako beroa pasatu genuen Parisen, Holandan, Alemanian eta Bruselan. Aurten, ostera, hondartzara! 11 egun egingo ditugu eta, gero, Andramaixetan, herriko jaietan ibiliko naiz, eta baita hemen inguruan ere, hondartzan, siesta egingez... Izan ere, udan, ahal dela, ezer ez egitea gustatzen zait”, diosku *Sarrera* doan-eko aurkezleak.



GOIATZ ARANA

“Ez zait gustatzen oporretarako lekua errepikatzea”

Korsikara joango da *poz-pozik Astebete* eta *Mandio* saioen aurkezlea, Euskal Herriaren antzerako leku polita dela esan diotela-eta. Hara doan aurreneko aldia da: “Ez zait gustatzen oporretarako lekua errepikatzea”. Gainera, Korsikak hondartzara joateko eta mendian ibiltzeko aukera ematen du, eta horrek erakargarriago egiten du lekua Goiatzendako: “Biak egitea gustatzen zait”. Bestela, opor egunak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko asmoa du.



MIKEL ARANBURU

“Benidormera eta Edinburgora joango naiz irailean”

Besteak beste *Txintxaun* eta *Jaiak* saioetako aurkezleari abuztuan lan egitea egokitu zaio aurten. Banco Guipuzcoanoko Aretxabaletako bulegoan jardungo du. “Baina irailean oporretan noa: Benidormera, lehenengo, asteberako, eta Edinburgora gero, lagun bat bisitatzera”. Hondartza asko gustatzen zaio: “Hareatzan etzanda egotea, paseatzea, bainutxo bat hartzea... asko disfrutatzen dut hondartzan”. Salouneta egona da, baina Benidormera lehenengo aldiz joango da aurten.



MAITE ALBES

“Lagunekin hemengo jaietan ibiliko naiz aurten oporretan”

Maitek Madrilen dihardu ikasten eta lan egiten, eta asteburuetan grabatzen du GOITBko *Musikaz blai* saioa. Abuztuan, lehenengo hamabostaldian izango du jai eta Arrasatera etorriko da “herri-minagatik”. Euskal Herrian ibiliko denez, jairik jai ariko da, hiriburu guztietan. “Lagunekin egiteko aprobetxatuko ditut oporrak”. Izan ere, Madrilen jo eta ke dabil Maite, Compaco Management agentziako Perormace dantza eskolan, ikasten eta baita bulego lanetan ere.



UGUTZ USANDIZAGA

“Udalekuetan ibili naiz eta abuztuan InterRail egin gura dut”

Hasi ditu oporrak *Soinuz blai* programako aurkezleak, eta Oriotik bueltan harrapatu dugu guk, udalekueetatik. “Baina, azken baten, horiek ere oporrak dira”. Eta gainera, abuzturako hasi da beste zerbait prestatzen: “Berez, asmoa da InterRail egitea, lagunekin. Urtero ahalegintzen naiz zerbait desberdina egiten, baina ez zait inporta errepikatzea”. Esan digu berarendako oporrak deskonexio mota bat direla eta hondartzara edo mendira joatea, biak egitea gustatzen zaiola.



OLATZ PAGALDAI

“Lanagatik eta katua zaintzearen, ezin naiz inora joan, batzuetan”

Olatzek oraindik ez daki zer egingo duen udan: “Akaso Murtziara joango naiz”. Hori bai, argi dauka ez duela lekua errepikatzea gustuko, “sekula ere ez”. Oporretan norberarendako astia hartzea gustatzen zaio: “Egunean zer egin gura dudana lasai pentsatu”; egunerokotasunetik deskonektatzek ere garrantzia du *Soinuz blai* saioko aurkezlearendako eta lagun berriak egitea ere gustatzen zaio. Dena dela, lan kontuengatik eta etxeko katua zaintzeagatik, beti ezin izaten da oporretan joan.



MAIDER ARREGI

“Euskal Herrian, jairik jai, eta Bartzelonan ibiliko naiz aurten”

GOITBko hainbat saioetako aurkezle oñatiarrak Euskal Herrian eta Katalunian igaroko ditu aurten oporrak. “Beste urte batzuetan kanpora joan izan naiz, Espainiako hegoaldera-eta; aurten, berriz, hemen igaroko ditut oporrak, jairik jai, Gasteizkoetan eta Donostiakoetan batik bat, baina eguzkia ere hartuko dut”. Abuztu amaieran, bestalde, Bartzelonara joango da, lagun batzuen etxera: “Forum famatua bisitatzera, Bartzelona inguruko kostaldea ikustera...”.



Añai erretegia

Eskaintza **Nardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01

- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak

- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

Eskaintza **Galartza auzoa / ARETXABALETIA**
943 79 24 58

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Pildain jatetxea

Eskaintza **Udala auzoa 14 / ARRASATE**
943 79 11 65 / 943 77 18 40

- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

Berezitasunak

- Bildotsa labean erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia



Torrekua jatetxea

Eskaintza **Ibargarai 37 / BERGARA**
943 76 50 99

- Eguneko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak

- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



Unzueta jatetxea

Eskaintza **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Uxarte ostatua

Eskaintza **Udala auzoa 12 / ARRASATE**
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia



Zotz jatetxea

Eskaintza **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Mikel Barrenetxea / Ikaslea

Zorionak. Zenbat aldiz eman dizkizute zorionak egun hauetan?

Askotan, lagunek batez ere. Senitartekoez ere zoriondu naute, noski. Batzuek telefonoz deitu didate eta beste askok, berriz, kalean zoriondu naute.

Nota onak ateratzegatik irabazi dituzu sariak.

Bai, bi sari eman dizkizute: 8,75 baino nota altua goa genuen ikasleak azterketa batera aurkeztu ginen, eta 18 nota altuenak izan dituztenak saritu dituzte. Bestetik, ikasturtean batez besteko nota altua izan duten ikasleek ere saria jaso dute.

Nik biak irabazi ditut: ingelesa ikasteko hilabeteko egonaldia atzerrian, eta unibertsitateko ikasketak egiteko beka edo laguntza.

Egunean zenbat orduz ikasita lortzen da hori?

Ikastolan erakutsi digutena ia egunero gainbegiratzten dut etxean, baina ez ditut ordu asko ikasten pasatzen; gelan azaldu digutena ondo ez badut ulertu, gehiago saiatzen naiz etxean, baina bestela ez.

Zein da emaitza horiek lortzeko trukua, orduan?

Ikastolako azalpenak ondo ulertzen saiatzen naiz gelan bertan, eta etxean nik hartutako apunteak ikasten ditut baka-

rrik; ezin ditut beste ikasle de batek hartutako apunteak ikasi, ikaragarri kostatzen zait.

Liburuez, entziklopediez eta hiztegiez gain, ordenagailuak ere erabiltzen dituzu?

Bai, noski. Arizmendi ikastolan baditugu ordenagailuak eta horiek ere erabiltzen ditugu lanak egiteko, adibidez.

Beti ateratu dituzu nota altuak?

Ez, beti ez. Batxilergoan eta DBHn bai, baina Lehen Hezkuntzako hirugarren kurtsoan, adibidez, ez nintzen ondo ibili. Irakasleek gauzak txantxetan hartzen nituela esan zioten amari, eta aldatu egin behar nuela; nahiko ateratzen nuen bakarrik.

Behin Bilbon nengoen, oporrak pasatzen, eta gaztelania azterketa nuen hurrengo astean. Hiru ordu jarraian egon nintzen telebista ikusten; kontsolarekin

ere ordu pilo egin nituen eta oraindik afaltzeko garaia ez zenez, apunteak eta liburuak irakurtzen hasia erabaki nuen. Ondo ulertu nituen apunteak, nota ona ateratu nuen azterketan, eta harrezkero nota onak ateratzen ditut.

Zer ikasiko duzute datoren ikasturteetik aurrera?

Ingeniaritza egingo dut, Telekomunikazioen Ingeniaritza; hementxe bertan gainera, MUn.

Zer egiten duzute ikasturduetatik kanpo?

Aikido egiten dut hementxe gimnasioan, borroka arte bat da.

Zorionak ematez gain, adarra ere joko dizute lagunek, ezta?

Bai, apur bat bai, baina ez larregi.

Andramaixetako jaietan ibiliko zara?

Bai, bai. Benidormera noa lehenbizi gurasoekin, baina herriko jaietan izango naiz; baita Bilbokoetan ere.



“Ez dut ordu askorik ematen ikasten, baina beti nire apunteak ikasten ditut”

“Telebistan eta kontsolan ordu pilo bat egin nituen, oraindik ez zen afaltzeko garaia, eta ikasten hasi nintzen”

“Benidormera noa gurasoekin baina herriko eta Bilboko jaietan ibiliko naiz”

► Aretxabaleta / 18 urte / Batxilergoko Aparteko Saria jaso du

PIPERRAUTSA

Entzierroa

San Inazio txupinazoa jaurtiko du eta hor abiatuko dira zezenak, kabestruak eta korrikalariak oporren entzierroan. Denak batera, ibilbide berean pilatuta, estropezuka, arrisku bizian, bizia arriskuan. Norbaitek noizbait aztertu behar luke zerk bultzatzen duen gurea bezalako gizarte zibilizatu oporretan entzierroa korritzera.

Ze, itxura guztien kontra, ez dago zoriona bide amaieran zain, zoriona norberak eraman behar du aldean, doan tokira doala. Han garatu egin daiteke bizipoza, aukera egokia egin bada. Baina hazirik ez dagoen lurtean, ezin landaririk erne.

Bestalde, entzierroko hesiez aparte ibilbide asko dago. Ez dago zertan egon txupinazoari adi, ez zertan aukeratu egun, ordu eta bide berberak joateko. Eta entzierroko emozioa maite duenak aurki dezala adrenalina film edo liburu onetan.

Agian, norbaitek erregimena egin du bainujantzian sartzeko eta amorratuta dago ez dituelako mitxelinak kendu. Nola amorruta txarra den entzierrorako, hementxe gomendioa: doala hondartza nudistetara. Han mitxelinak ez diote trabarik egingo, eta biluztasuna onuragarria da oso, gorputzarentzat bezala bururako.

Eta azken desioa: joandakoek aurki dezatela doazen tokian bake ederra, gutxienez uzten dutenaren adinakoa. Haiek joanda hasten baita garatzen bestean zoriona, geratzen garenona.

Ondo pasa uda. Eta kontuz entzierroan.

MIKEL IRIZAR